

Herririk Herri | 4

Durango San Fausto jaietarako aurrekontua %30 murriztu dute



Berbaz | 8

Mari Carmen Garcia: "Sindikatuaren papera eten barik kalean egotea da"

Gehigarria:

Iurretako Jaiak



DURANGALDEA | 3

Hainbat sindikatu eta eragile grebagaz bat

ELA, LAB, CNT, Geu Be, Izar Gaztea eta Voz Africanak grebarako deialdia zabaldu dute

Murrizketen aurrean borroka soziala beharrezkoa dela azpimarratu dute

ABADIÑO | 6

Zelaietako eskolako zazpi ume, jantoki zerbitzu barik daude

Leku arazoak direla-eta, jantoki zerbitzu barik gelditu dira zazpi ikasle. Eraikin berriko obrak abenduan hastea itxaroten dute, eta horregaz arazoa konpontzea.

Durangaldea | 2

Bai Euskarari ziurtagiriaren kanpaina berria aurkeztu dute

Elorrio | 7

Argiñetako gune arkeologikoa aztertzen hasi dira aste honetan

Otxandio | 4

Autoek sarrera mugatua edukiko dute Mainerrotara asteburuetan

Mañaria | 3

Aurrekontu parte-hartzaileak egiteko asmoa agertu du udalak



BOART

Sukaldeak - Bainugelak - Horma-armairuak

Fabrikatzaileak gara eta espazio bakoitzaren neurrirako irtenbideak topatzen ditugu

Eitua industrialdea, 9 - 6 behea
48240 BERRIZ - Tel. / Faxa: 94 682 68 79

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak
@anboto

DURANGALDEA

Bai Euskarari ziurtagiriak pausu gehiago gura ditu

Euskaraz egiten duten enpresa eta denden kopurua igotzea da helburua

Bai Euskarari ziurtagiria zabaltzeko kanpaina aurkeztu dute Durangon: *Urrats Biziak Durangaldean*. Enpresa eta saltokietan jarduera euskaraz egiten dela bermatzen du agiri horrek. Rober Gutierrezek, ziurtagiriaren aldeko elkarteko

zuzendariak, adierazi du gauregun 1.500 komertzio direla Euskal Herrian ziurtagiria daukatenak. Horietatik %14 bakarrik ei dira bizkaitarrak, eta 27 Durangaldekoak. Plateruena kafe antzokia eta Ibaizabal ikastola izan dira batzen berrienak. Gutierrezek kanpaina-

Plateruena kafe antzokia eta Ibaizabal ikastola izan dira batzen berrienak

ren helburu nagusia garbi azaldu du: "Enpresa eta saltoki kopurua nabarmen igotzea". Bere ustez, ziurtagiria jasotzea kalitatezko urratsa da eta enpresa eleanitzek gertutasuna eta konfidantza sortzen dituzte.

Plateruenerako Beñat Gaztelu-Urrutiak ziurtagiria lortzeko hasierako momentuz berba egin du. "Beharginen arteko hartu-emanetan, bezeroekiko tratuan... Ustez funtzionamendu guztiz euskalduneko erakunde bat ginelakoan geunden. Konturatu gara beti dagoela zer hobetu". Hornitzaileekin edota herri erakundeekin daukaten erlazioak ipini ditu adibide.

Jarrerak, domino efektua ekarri ahal duela dio: "Norberak pausu horrek ematen baditu, hornitzaile hori euskalduntzeko pausua eman ahal du".

Etenaldia hautsi guran
Euskara Elkartearen Topaguneko presidentek, Mikel Irizarrek, adierazi du euskaraz aldekotasuna behar duela. "Osogarrantzitsua da euskara profesionaltasunagaz, prestigioagaz, kalitateagaz eta bezeroaren arretagaz lotzea". Bere ustez, aldeko giro horrek indartuko du euskararen normalizazioa, azkeneko inkestaren arabera etenaldian dago-eta. ■ M. Onaindia



Ezkerretik hasita, Irizar, Gutierrez eta Gaztelu-Urrutia.



Ibaizabal ikastolako Idurre Maortua, ziurtagiria jasotzen.

Bizkaiko Urtxintxa Eskola
Zabalerri 28, 48009 ELIZA. T: 94 422 94 43. F: 94 422 99 99
www.urtxintxaeskola.org
urtxintxa@urtxintxaeskola.org

2012
2013

Astrialdiko Begiralea Durangon

Helburuak

- Ume eta gasteekin lan egiteko gai izango diren hezitzaileak ezteza.
- Astrialdiko heziketan, hausnarketa eta marko teoriko-lanen azagapenera hasiera ematea.
- Hasiera edozein eburitza programatzeko eta horren inguruko hausnarketarako eta auto-aitzakerako prestaketa.

Egutikak

- Talde dinamikak, Psikologia ebolutiboa, Sexualitatea.
- Ingurueraren azterketa eta programazioa.
- Heziketa astrialdian, Begirale spologia.
- Zehar lehenak: Haziak eta kulturalitatearen pedagogia.
- Urtxintxa eta kargamenduak, Naturaren pedagogia.
- Euskal Herriaren heziketa, Jolasak.

Baldintzak 18 urte betetsa izatea, 2012ko abendua baino lehen.

Egutegia: Astelehenetan hilean behin, 2 ikasturte.

Ordutegia:
Astelehenetan: Larunbeteke 10:00etatik, igandeke 17:00ak arte
Larunbeteke: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00
Igandeke: 10:00-14:00

Irautpena 200 ordu teoriko eta 120 ordu praktikoa.

Hikuntza Euskaraz

Ikastaroaren prezioa Amankomunaz gain duden hemelako biziagunentzat doan: Abadiño, Alzando, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Zaldibar.

doan!

Eman izena!
DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOAN:
Euskara Zerbitzua, Leuzideta 6, Durango.

MATRIKULAZIOA
Irailaren 27ra arte

ANTOLATZAILEA
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa

IKASTAROAREN EMALEA
BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLA
urtxintxa

Konpostajea probatuko dute Mañarian eta Izurtzan

Partaideak bilatzeko batzarrak egingo dituzte

Mañaria eta Izurtzako udalek hondakin organikoa ongarri bihurtzeko metodoa, konpostajea, probatu gura dute. Esperientzia pilotuak erabiliko dituzte horretarako;

Izurtzan 30 familiak parte hartzea itxaroten dute, eta Mañarian hogeik. Partaideak bilatzeko informazio batzarrak egingo dituzte. Azterlan zentroak lagunduta gara-

tuko dute esperientzia. Ikastaro praktikoa bat prestatuko dute eta konpostajerako behar diren tresnak emango dituzte.

Mañarian ipini dituzte batzarraren datak: Urkuletan, hilaren 25ean, 19:00etan; Arrueta eta Aldebarrietan, 25ean, 20:00etan; Aldebarrenan, 26an, 19:00etan; Herrigunean, 26an, 20:00etan, eta Aldegoienan, 27an, 20:00etan. Izurtzan zehaztu barik dago, baina aste bi barru izango da. ■ M.O.

Abadiño eta Berrizen euskaraz bizitzeko gogoia zabalduko dute

Kontseiluak eratuta, herri lasterketak egingo dituzte Euskal Herrian

Bihar, euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatuko dute, baita Durangaldean ere. Kontseiluak antolatuta, herri lasterketak egingo dituzte Euskal Herriko hainbat herritan, eta Abadiñok eta Berrizek ere bat egin dute ekimenagaz.

Abadiñon, Muntzaratz dorretik irtengo du herri lasterketak, 09:30ean, Talde Batuak dantza taldeak aureskua eskaini ostean. Txanbolineko txistulariek alaituta kalejiran abiatuko dira gero Zelaieraino. Ume eta nagusi-

entzako jolasak antolatu dituzte kultur eta kirol taldeek, ikastetxeek eta guraso elkarrekin.

Astolarako bidea ekiteko, berriz, Batugara elkarrekin egingo du gonbitea. Ostean, Traña-Matienara abiatu aurretik, 12:00etan, dantza saioa egingo da. Bertan,

Abadiñon, Muntzaratz dorretik irtengo du lasterketak, 09:30ean

Iluntze dantza taldeak hartuko du testigua. Ekitaldi berezia eratu dute, Iluntze sortu zeneko 30. urteurrena dela-eta.

Arratsaldean, Berrizen
Berrizen, Olakuetan batuko dira 17:00etan, izen-emate eta kamisetak salmentarako. Futbol zelaira igoko dira gero, lasterketak handik irtengo du-eta, 18:30ean. Ekitaldiaren ostean, txokolata eskainiko dute, eta DJ Roberrek musikagaz giroa berotuko du. ■ A.B.



Murrizketen aurrean, borroka sozialerako deia

Irailaren 26rako Greba Orokorra deitu dute hainbat sindikatu eta elkartetako ordezkariak

Arrazoiak sobera ei daude. Irailaren 26rako Greba Orokorra deitu dute hainbat sindikatuak eta gizarte eragilek. ELA, LAB eta CNT sindikatuetakoa eta Geu Be, Voz Africana eta Izar Gaztea elkarteetako ordezkariak agerraldia egin dute Durangon protestara deitzeko. Bilgune Feminista eta AHT Gelditu! Elkarlana ere batu zaizkie. Greba egin eta kalera irtetea eskatu diete herritarrei, Espainiako Gobernuaren murrizketei kontra egiteko. Geu Be elkarteko Jose Alfaro egin du berba euskaraz hedabideentzat. Esan duenez, aurrekaririk ez daukan lan eta gizarte eraso dator: "Esku-

bide guztiak lapurtu gura dizkigute; oinarritzkoenak ere bai, aurreko belaunaldiak borroka luzez eta sakrifizio askoren ondorioz lortutakoak".

Bankari, herritarren kontu Azken urteetan ezarritako hainbat neurri ekonomiko ekarri dituzte gogora prentsaurrekoan: jubilazioaren atzerapena, sendagaien berrordainketa, komertzioen ordutegiak desarautzea, BEZ zergaren igoera, etorkin irregularrei osasun txartela kentzea... Murrizketa berriak egongo direla ere ohartarazi dute. Zuloak betetzeko, bankari dirua herritarren eskubideen kontura ematen zaiola kritikatu dute. "Ez gaude haiek sortutako krisia ordaintzeko prest".

Baina, krisiaren ordaina gaurko arazo da dagoeneko. Alfaro emandako datuen arabera, esaterako, Durangaldean 2.215 pertso-



Alfaro (jarrita, eskuman): "Ez gaude haiek sortutako krisia ordaintzeko prest".

na daude laneko erregulazio espedienteagaz. Durangon bertan, 1.700 langabetu inguru daude. Azken bost urteetan, EAEko komertzioen %11,4 itxi egin behar izan dituzte. Egoeraren aurrean, mobilizatzeko beharra aldarrikatu dute: "Politiken norabidea alda-

tzeko eta murrizketarik ez aplikatzeko gizarte borroka da bide bakarra". Eguaztenean manifestazioak egingo dituzte Durangon eta Eorrian, 17:30ean. Goizean Bilboko protestara batuko dira, azken lau urteetako bosgarren Greba Orokorriari ekiteko.

Politikarien babesa

Bildu eta Aralarren hautetsiek ere babesa agertu diote grebari. Udalen autonomiaz kezka adierazi dute: "Euskal Herriko udal eta egitura instituzional osoa finantziazio ahalmen barik geratzeko arriskua dago". ■ M. Onandia

MAÑARIA

Partaidetzak garrantzi berezia edukiko du aurrekontuak osatzeko

2013rako inbertsioen atal bat herritarrekin eztabaidatzeko gordeko dute

2013ko udal aurrekontuak diseinatzeke herritarren partaidetza eskatu du udalak. Endika Jaio alkatetarako garrantzi berezia eman dio: "Oso aberasgarria izan ahal dela uste dugu". Helburua, kudeaketa gardena dela dio. Aho batez onartu du egitasmoa udalbatzarrek, Bildu eta EAJren botoekin. Julen Uribealdea jeltzaleak dio eredu egokia dela. "Iritzia jasotzeko aurrekontuei bermea ematen die".

Jakinda hutsetik hasiko direla, ez dute aurrekontu osoaren

zehaztapena herritarren esku utziko. Jaiok adierazi du inbertsioen atal bat gordeko dutela guztien artean eztabaidatzeko. Atal hori aurretik bermatuko dutela; hau da, erabakitzen dena egiteko dirua gordeko dute.

Galdetegi bat banatu, eta azaroaren 5era arte jasoko dituzte proposamenak

Datozen egunetan informazio kanpaina hasiko dute eta urriaren 22tik 28ra bitartean egingo dituzte lehenengo batzarrek. Galdetegi bat banatu, eta azaroaren 5era arte jasoko dituzte iritzia. Partaide batzuekin talde motorea sortuko dute eta, ostean, proposamenen bideragarritasuna aztertuko dute. Azken emaitzak berriro azalduko dituzte herritarrekin. Batzordeetatik pasatu eta gero, aurrekontuetan integratuko dituzte, abenduan. ■ M.O.

IZURTZA

Zabor ontziak zentralizatu eta bateratu egingo dituzte

Sakabanatutako kontainerrak kendu eta auzo sarreretan ipiniko dituzte, auzotarrekin adostuta

Hondakin ontziak birkokatu egingo dituzte, eta zelan egingo duten azalduz Durangaldeko Amankomunazgoak herritarrei, eguaztenean udalbatzar aretoan emandako hitzaldian.

Oro har, hondakin ontziak bilketa guneetan zentralizatu edo erdiratu gura dituzte. Hau da, auzoetan zehar sakabanatuta dauden zabor ontzi batzuk kendu eta auzoen sarreretan hondakin ontzi mota guztiak batuko dituen guneak sortu gura dituzte.

Era berean, hondakin orokorren ontzi berde batzuk handiagoak diren beste batzuegatik aldatuko dituzte. Aldaketa horiek, tokian tokiko auzotarrekin adostu dituzte edo adosten ari dira.

Esaterako, Eleizalden, txaleten atzealdeko gunea mantenduko dute eta frontoi atzealdeko aparkalekuaren hasieran berri bat sortu. Frontoi ostekoa laster ipintzea aurreikusi dute. Gainerako aldaketak apurka eta progresiboki egingo dituzte. ■ J.D.

ATXONDO

Lehengo eskola jantokira tokialdatuko dute ludoteka

Materiala eroateko herritarren laguntza eskatu dute; zapatuan, 10:00etan ipini dute hitzordua

Marixurrike aisialdi taldeak kudeatzen duen ludoteka tokiz aldatuko dute. Uztailean arte eskolako jantokia izan den eraikinean izango du kokaleku berria. Ludoteka orain arte zegoen tokian alokairua ordaindu behar zuen udalak

Marixurrikek lan poltsa sortuko du; udaletxean utzi ahal da curriculumak, edo taldearen e-mailera bidali

eta oraingo leku berria udalarena denez, ez dute ezer ordaindu behar. Altzariak eta gainerako materiala toki berrira eroateko, herritarren laguntza eskatu dute. Zapatuan, 10:00etan, ipini dute hitzordua laguntzeko prest daudenentzat. Ludoteka urriaren bigarren hamabostaldia hasi baino lehen zabaltzea itzaroten dute.

Era berean, Marixurrikek lan poltsa bat sortuko du; udaletxean utzi ahal da curriculumak, edo aisialdi taldearen e-mailera bidali: marixurrike@gmail.com. Irailaren 28ra artekoa da curriculumak aurkezteko epea. ■ J.D.

GARAI

Bazkaria eta aste kulturala, nagusien ekimenez

Garaiko San Migel nagusien elkar-teak hainbat ekintza antolatu dituzte asteetarako. Urtero legez, San Migel Egunean bazkaria egingo dute, eta urriaren 1etik aurrera aste kulturala ospatuko dute. Elkar-tearen izenagaz lotuta, San Migel Egunez elkartuko dira jairako. Herriko taberna bazkalduko dute,

eta elkarteordezkariak esan dute bezperara arte egongo dela izena emateko aukera. 28 euro ordaindu behar dute interesdunek.

Normalean, aste kulturala santuaren egunaren aurretik egin ohi dute, baina aurten atzetik egitea pentsatu dute. Arduradunek azaldu dutenez, bazkideetako asko kanpoan egon dira eta horregatik erabaki dute atzeratzea. Urriaren 1ean hasiko da briska txapelketagaz. Hurrengo egunean tutean ibiliko dira eta urriaren 3an musean. Horrez gainera, tortilla txapelketa ere egingo dute urriaren 3an. ■ M. O.

DURANGO

Ohiko bezeroak eskertuko ditu +Dendak-ek Goienkalen

Gaur hasiko dira Goienkaleko jaiak. Mesedeetako Amaren Egunaren bueltan ospatzen dira jaiak urtero, eta aurten ere lau egunerako ekitaldiak prestatu ditu merkatarien +Dendak elkarteak. Santiago Reyes ordezkariak azaldu du elkartearen txartela daukatenentzako doan izango direla eguneko ekitaldi gehienak. "Ohiko bezeroen konstantzia eskertu gura dugu". Gaur, 19:00etan, poteoagaz ekingo diote ospakizunari, txaranga eta guzti. Araceli Guerrero antolatzaileak esan du adin guztietarako ekintzak eratu saiatu direla.

Biharizango dira ekintza gehienak. Tartean, urteroko sardina jana herrikoia. Eguerdian banatuko dituzte sardinak, Tabira musika bandaren kalejiraren ostean. Arratsaldean mus txapelketagaz jarraituko dute, eta gauean Hakker taldeak erronomia eskainiko du. Domekan trikipoteoa egingo dute 13:00etan. Astelehenean amaituko dira jaiak, meza eta jubilatuen bazkariagaz. ■ M. O.

Sanfaustoetarako aurrekontua, ia baino %30 txikiagoa

Murrizketagaz, nobedadeak egotea ia ezinezkoa dela aitortu du Natxo Martinez zinegotziak

Sanfaustoak ere ez dira krisitik salbatuko. Aurtengo jaietarako aurrekontua %30 murriztu dute, Natxo Martinez zinegotziak jaien aurkezpenaren azaldu duenez. Guztira, 247.000 euro inbertituko ditu udalak jaiak antolatzeko. Martinezek esan du murrizketa garrantzitsua dela. "Kontziente gara ez dela dirua neurri barik gastatzeko sasoia". Onartu du horrenbesteko beherakadagaz ia ezinezkoa dela egitarauan nobedadeak egotea.


Txosnagunea Kurutzian ipiniko dela baieztatu du Marti-

Martinez: "Kontziente gara ez dela dirua neurri barik gastatzeko sasoia"

nezek. Gune hori urriaren 11n zabalduko da, baina ofizialki 12an hasiko dira jaiak. Tronperri, Txoritxu Alai eta Kriskitinek botako dute txupinazoa udaletxetik. Txupinazo txikiaren ardura Inurri eskaut taldeari eman diote; urriaren 14a izango da umeen eguna.

Egun bat gutxiago edukiko dute sanfaustoek. *Zezenak diragaz* ere gauza bera gertatuko da; urriaren 12an, 13an, 14an eta 20an egingo dute sokamuturra. Musikari dagokionez, Su Ta Gar taldeak joko du urriaren 19an. Los Sabandeiros kanariarrak ere ikusi ahaliko dira 13an, hamar euroan.

Bestalde, urriaren 13an egin ohi den Marmitako txapelketa Landako Gunera eroango dute merkatu plazatik. 70 bikotek parte hartu ahaliko dute aurten. Inskripzioa hasita dago. ■ M. Onandia



Urriaren 12an hasiko dira jaiak, eguerdiko 12:00etan.

Elikadura ekologikoaren gaineko topaketa eratu dute, Plateruenean

Berbaldi laburrak, ardo dastaketak eta bazkariak egongo dira hilaren 29an

Dastaketa ekologikoa topaketa antolatu dute irailaren 29rako Durangon. Marisatsak, ekoizle eta kontsumitzaile ekologikoen elkar- teak, eta Plateruena kafe antzokiak bultzatu dute topaketa. Elikagai ekologikoekin loturiko ezagutza eta kultura bultzatzea eta bertako ekoizleak laguntzea da helburua, azaldu dutenez. Berbaldi labur- rek, ardo dastaketak eta bazka- riak osatuko dute egitaraua.

Goizeko 11:00etatik aurrera, doan, elikadura ekologikoagaz lotutako ekimen edo esperien- tziak kontatuko dituzte bost gon- bidatuk. Ordu laurdeneko ekarpe- na egingo du bakoitzak. Lehenen-

go Xabier Lejarzegik hartuko du berba; Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontsei- luko zuzendaria da. Aitzol Men- diolak Iruñeko Landare kontsumo

Goizeko 11:00etatik aurrera, doan, esperientziak kontatuko dituzte bost gonbidatuk

Ardo ekologikoen dastaketa 13:00etan egingo dute, Roberto Sarriugartegaz

elkartearen izenean egingo du berba. Lekeitiko R.M. Azkue ikas- tolako jantokian hurreko elikagai ekologikoekin egiten dute lan, eta Jose De la Torre zuzendariak eman- go ditu azalpenak. Larrabetzuko herri eskolan ere antzeko egitas- moa daukate; guraso elkarte- ko Patxi Gaztelumendi gonbidatu dute. Sabrina Pato, Ekolapiko enpresako aditua ere etorriko da.

Ardo ekologikoen dastaketa 13:00etan egingo dute, Roberto Sarriugartegaz. Jaialdia amaitze- ko, Platerueneko menu ekologikoa jango dute. 25 euro balio du eki- men bietarako txartelak; 12 euro umeentzat. ■ M. O.

100 urtera ailegatzeagatik zoriondu dute Pilar Blanco



Pilar Blanco Fernandezek 100 urte bete zituen eguaztenean. Joxe Miel Barandiaran egoitzan ekitaldi xumea egin zuten hori ospa- tzeko; gainera, adin horretara heltzen den lehenengo egoiliarra da. Udalaren izenean Mari Jose Balier alkateordeak eta Gizarte Ekintzako teknikariak zoriondu zuten. Lore sorta oparitu zioten, eta senitarteko batek trikitixa pieza bat eskainizion. Gernika-Lumon jaio zen Blanco, baina Durangon bizi da aspalditik.

OTXANDIO

Mainerrotarako zirkulazioa mugatu dute asteburuetan

Zapatuko 14:00etatik asteleheneko 06:00etara, txartela dutenak bakarrik sartu ahaliko dira

Irailaren 29tik aurrera, asteburu- tan Mainerrota auzoa zirkulazio mugatuko gunea izango da autoentzat. Zapatuan 14:00etan altxako dituzte piboteak eta aste- leheneko 06:00etan jaitsiko dituz- te. Astegunetan, aldiz, piboteak jai-

Astegunetan piboteak jaitsita egongo dira eta auto denek zirkulatu ahaliko dute

tsita egongo dira eta auto denek zirkulatu ahaliko dute. Neurri horiek asteburu honetan bertan ipini gura zituzten indarrean, bai- na piboteak zaintzeko *softwarea*- gaz arazo teknikoak izan dituzte- nez astebete atzeratu dute.

Asteburuetan auzotarrek, komertzioetako arduradunek, alde zaharrera Mainerotatik sartzen direnek eta emergentzietako autoek bakarrik sartu ahaliko dute Mainerotara, txartel batez.

Oraingoz 75 herritarrek eska- tu dute txartela, gehienak Maine- rrotakoak. Gura duenak udale- txean egin dezake eskaera. ■ J. D.

Lau ikastarotan izena emateko epea zabalik, urria hasi arte

Argazkigintza aurreratua, eskula- nak, marrazketa artistikoa eta txa- laparta. Udalak lau arlo horieta- ko ezagutzan sakontzeko aukera eskainiko du ikastaroen bidez. Udaletxean eman daiteke izena, urriaren 1era arte.

Argazkigintza aurreratua urriko eta azaroko barikuetan

landuko dute eta beharrezkoa da reflex argazki makina izatea. Marrazketa artistikoari buruzko ikastaroa ere urriko eta azaroko bariku arratsaldeetan izango da. Pinturak eta oihala norberak eroan beharko ditu.

Eskularen inguruko ikasta- roa urrian hasi eta martxora arte iraungo du. Besteak beste *patch- work* teknika zelan landu eraku- tsiko dute. Txalaparta ikastaroa urritik abendura emango dute eta oraindik ez dute preziorik zehaztu. Gainerako ikastaroeta- rako prezioak 15 eta 27 euro artean daude. ■ J. D.



Eusko Labela duten kalitate goreneko elikagaiak Benetakoaz gozatu

Eusko Label produktuaz gozatzea, hain zuzen ere, gure ekoizleek beren lanean jartzen duten arreta balloesten jakitea da, ingurune pribilegiatu parekaezin bat iraunarazten jakitea da, goi mailako kalitate ziurtatua duten produktuak aukeratzen jakitea da... eta benetakoaren zaporeaz gozaten jakitea da.

Gehiago jakiteak gehiago gozatzea baitakar.



www.benetakoazgozatu.com



hazi

Landa eta itsas ingurunearen garapenerako Eusko Jaurlaritzaren Korporazioa

Corporación del Gobierno Vasco para el desarrollo del medio rural y marino

ABADIÑO

Iluntze dantza taldeak 30 urte bete dituela ospatuko dute bihar

Hiru hamarkadatan ibilitako dantzari guztiak gonbidatu eta 250 lagun inguru batuko dira

Orain hiru hamarkada iluntze sortu zutenetik taldetik igaro diren dantzariak elkartuko dira biharko antolatutako egitarauaren bultzan. "Geuretzat pentsatutakoa da biharko egitaraua", diote taldekiek. Dantza egin zein elkarrekin bazkaltzeko batuko dira taldeari lotuta egon diren adin guztietako dantzariak. Herritarren laguntzagaz prestatuko dute bazkaria eta 250 lagun espero dituzte.

Bazkalostean egingo dute omenaldia eta taldearen bideo eta argazkien erakusketa

Gaur egun, nesken lau taldek, mutilen hiruk, eta ume txikien talde batek osatzen dute iluntze dantza taldea.

Bazkalaurrean, Ilutzeren egungo taldeetan daudenek nahiz inoiz dantzari aritu izan diren

120 dantzari inguruk emanaldia eskainiko dute.

Omenaldia jasoko du taldeko kide batek, gainera. Baina biharko ekitaldian argituko dute nor den omendua -nahiago izan dute izena ordura arte sekretupean gorde. Bazkalostean egingo dute omenaldia eta taldearen historia jasotzen duten bideo eta argazkien erakusketa ere.

Goizean, 11:00etan elkartuko dira urteurren jaian parte hartze-
ra gerturatzeko. Ondoren, 12:00etan, Traña-Matienan zehar kalejira abiatuko dute zanzantzarek eta txistulariek lagunduta. Dantza emanaldi nagusia, aldiz, 12:45ean eskainiko dute. Eguna borobiltzeko, 18:00etan, Txoro eta Mokoko pailazoak ariko dira, eta 19:00etan, erromeria egongo da.

Kontseiluak biharko antolatutako *Euskaraz bizi nahi dute* ekimenagaz ere bat egingo dute: 12:30ean, Bodegilla parean. ■ I.E.

sungarri diren ariketak uztartzen dituen gimnasia hipopresioa; argazkilaritza digitalari buruzkoa; eta beira lantzeko ikastaroa antolatutako, esaterako.

Beste urte batzuetan eskaini dituzten hainbat ikastaro ere mantenduko dituzte, gainera: batuka, tai chi, areto dantzak, aerobic, sukaldaritza, masajea, pintura eta yoga, besteak beste.

Urrian hasi eta ekainean amaituko dira ikastaro gehienak, eta irailaren 28a arte dago izena emateko aukera. ■ I.E.

ZALDIBAR

Auzolanean konpondu gura dute Olazar ingurua

Olazar futbol zelaia zegoen ingurua atonduko dute; irailaren 29rako deitu dute auzolanera

Olazar futbol zelaia zegoen ingurua konpontzeko auzolanerako deia egin du Zaldibarko Udalak. Jokalarien aulkiak eta futbol zelaia inguratzen zuen hesia kendu eta zurezko hesi berria egin gura dute, adibidez. Gainera, zelaiaren inguruan korrika egiteko pista bat atontzeko harea botako dute, eta Ola-

zar pilotalekuaren horma margo-tuko dute irailaren 29an, auzolanean lagunduko dutenen artean.

Egin beharrekoak ondo antolatzeko, irailaren 25ean batzarra egingo dute udaletxeko pleno aretoan, gobernu taldeak deituta. Laguntzeko prest dauden herritar guztiak gonbidatu dituzte 19:00etan hasiko den batzarrerara.

Arantza Baigorri alkateak esan duenez, "herrian gauza asko antolatze-
ko aukeran daukagun espazio bakarra da Olazar futbol zelaia, eta egoera onean mantentzea oso inportantea dela uste dugu". ■ I.E.

Egin beharrekoak antolatze- ko, irailaren 25ean batzarra egingo dute udaletxean



Zelaietako eskolaren eraikinari lotuta eraiki gura dute proiektu berria.

Jantoki zerbitzu barik gelditu dira zazpi ume Zelaietan

Eraikin berriaren obrak aurreikusitako moduan abenduan hasia itxaroten dute

Zelaieta Herri Ikastetxeko zazpi ume euren etxeetan bazkaldu beharko dute ikasturte honetan. Ikastetxeko jantokia lepo beteta dago eta ez dute lekuri bertan bazkaltzeko. Ikasturte honetan bi eta hamabi urte arteko 252 ume bazkaltzen dute zentroan. Hiru txandatan banatzen dituzten arren, ez dago gehiagorentzako lekuri. Egoera horren aurrean, gurasoak kezkatuta daude: "Oso injustua da ume hauek jantokian ez gelditzea. Lau urteko ume batzuek 14:00etan bazkal-

tzen dute. Arazoa oso larria da", azaldu du Maite Frades gurasoak.

Gema Telletxeak, ikastetxeko zuzendariak ere gai honekin kezkatuta daudela adierazi du. Gaineratu duenez, "zuzendaritza, gurasoak eta irakasleak alternatibak topatzen saiatu gara, baina ez ziren egingarriak".

Zelaietako eskoletako leku falta konponduko lukeen proiektuak eraikin berri bat eraikitzea aurreikusten du. Obra horiek gimnasio berria egin eta jantokia handitzea da asmoa. Lanak has-

teko datan aldaketa asko egon dira. Haiseran lanak abenduan hasiko zirela iragarri zuen Eusko Jaurlaritzak. Uztailean aurreratu zuten epea eta gero berriro atzeratu dute abendura. Jose Luis Navarro alkateak dioenez, obra esleitura dago, baina Ogasun sailak diru hori noiz liberatu zain daude. Proiektu berriari abenduan ekiten badiote, lau-bost hilabeteko epean amaituta egongo litzateke. Beraz, jantoki berria datorren ikasturtera arte ez da prest egongo. ■ J.G.

IURRETA

Larrakozelairako bidea eskatu diote Aldundiari

Premiazko lanak amaituta, herriarena izango da

N-634 errepideko biribilgunetik Larrakozelai futbol zelaira doan bide zatia udalaren esku uztea eskatu dio udalbatzak Bizkaiko Foru Aldundiari. BI-334 bide zati hori (810 metro) herriarena dela uste dute, eta eskumenik ez izateak auzokoen eskaerei erantzuz-

Espaloia jarriko dute Iturburutik Amatarako sarrerara arte, udal arduradunek azaldu dutenez

tea zailtzen duela ere esan du Iñaki Totorikaguena alkateak.

Premiazko hobetze lanak amaituta utziko du Aldundiak bidea. Espaloia jarriko dute Iturburutik Amatarako sarrerara arte, udal arduradunek azaldu dutenez. Iturburu eta Garai-zar-koentzat pasabide jasoa ere egingo dute, eta, Larrakozelai inguruko oinezkoen sarbidea hobetu. Abuztuan hasi zituzten udalagaz adostutako lanak eta urrian dira amaitzekoak. Oinezkoen segurtasuna hobetzeko neurriak ere hartuko direla aurreratu dute. ■ A. B.

BERRIZ

Antzerki tailerra eskainiko du aurten ere Txintxaunek

Gorputz adierazpena eta inprobisazioa landuko dituzte; datorren astean eman behar da izena

Antzerki jokoak, gorputz adierazpena, inprobisazioa... Zerotik hasi eta antzerkian trebatzeko tailerra hasiko du urrian Txintxaun Kolektiboa antzerki taldeak. Eguaztentean izango dira eskolak,

Antzerki taileraz gainera, dantza ikastaroak ere hasiko dituzte urrian

19:00etatik 21:30era, eta ekainera arteko tailerra izango da. Berriztarrek hiru hileko bakoitzean 70 euroko kuota ordaindu beharko dute tailerlean parte hartzeko, eta kanpotarrek, berriz, 90 eurokoa. Kultur etxean eman behar da izena, irailaren 28a baino lehen.

Antzerki taileraz gainera, dantza ikastaroak ere hasiko dituzte urrian. Areto dantzak, salsa eta sabel dantza ikastaroak eskainiko dituzte. Zeramika ikastaroa ere laster hasiko da. Guztietan, izena emateko azken eguna irailaren 28a izango da. ■ A. U.



Durungaldean labur

Etorkinek euskara ezagutzen hasteko aukera Durangon

Euskararen eta euskal kulturaren oinarriko ezagutza jasotzeko AISA ikastaroak urriaren 8an hasiko dituzte Durangon. Etorkinei zuzendutako euskara ikastaroak dira, eta udalaren Euskara sailak antolatzen ditu, aurten zortzigarrenez. Eskolak astelehen, martitzen eta eguazten iluntzetan izango dira. Informazioa eskuratzeko, 94 603 00 16 zenbakira deitu, edo euskera@durango-udala.net helbidera idatzi.

Gimnasia, inglesa eta puntu ikastaroak Mañarian

Ikasturtea hasita, hainbat ikastarotako klaseak ere laster hasiko dira Mañarian. Gimnasiarako iraila osoan zehar eman ahalko da izena eta klaseak martitzen eta eguazten izango dituzte. Inglesa ikasi gura dutenek batzarra edukiko dute irailaren 21ean, 18:00etan, udalbatza aretoan. Puntua egiten ikasteko liburutegian batuko dira martitzenero, urriaren 2an hasita.

Abadiñoko Euskara Kontseilurako deia

Euskara Kontseilua osatzeko deia egin du Abadiñoko Udalak. Euskararen normalizazioan ekarpenak egin eta parte hartu gura duenak Euskara sailera jo dezake. Bertako telefono zenbakiak 94 621 55 35 eta 688 653 401 dira. Helbide elektronikoa, berriz, euskera@abadiano.org.

WOPen berri, Mas Curvas elkarteak

Walk On Proyect (WOP) gaixotasun arrarodun umeen aldeko egitasmoa da, eta iaz Durangon Duranwop musika jaialdia antolatu zuten. Aurten Bilbon egingo dute. Mas Curvaseko kideak motorragaz ibiliko dira batera eta bestera domekan, jaialdiaren informazioa banatzen.

ELORRIO

Hasi dute azterketa Argiñetako gune arkeologikoan

Ermitaren iparraldeko eremuan eta nekropolian ariko dira beharrez, proiektuaren lehen atalean

Asteon hasi dira beharginak Argiñetako indusketa lanean. Elorrioko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak akordioa sinatu zuten martxoan Argiñetan ikerketa egin eta ingurunea berreskuratzeko. Hiru ataletan garatuko dute proiektu osoa, eta 2015erako amaituta egotea espero dute. Lehenengo atal honetan, hasierako indusketaren ostean, eskuz jardungo dute lau arkeologok eta hiru laguntzailek. Ermitaren ipa-

rraldeko eremuan eta nekropolian egingo dute behar. Ikerlariak jakinmina aspalditik eduki arren, EHUko ikerketa talde batek 2010ean egindako zundaketen ondorioa da egungo proiektua. Baselizaren iparraldean gizakiaren antzinako kokaleku baten aztarnak aurkitu zituzten: zutoin zuloak, mozketak harrietan eta egurrezko eraikuntza zaharren arrastoak. Ermitaren hegoaldean, VIII. eta XII. mendeen arteko bost



Astelehenean Argiñetan hartutako irudian, beharginak lurra mugitzeko lanetan. Jabier Ugalde

hilobi estalki eta harlauzako hilibi bat aurkitu zituzten. Zuloek eta markek, material galkorrez egindako etxebizitza-multzoa egon zela frogatzen ei dute. Hemendik aurrera, Iñaki Garcia Camino

Indusketaren ostean, eskuz jardungo dute lau arkeologok eta hiru laguntzailek

arkeologoak zuzenduko du lana. Besteak beste, Goi Erdi Aroko herririkaren eraikuntza-historia zehaztea eta biztanleen demografia eta elikatzeko ohiturak aztertea da helburua. ■ M. Onaindia

Euskara biziberritzeko herri plangintza diseinatuko dute

Euskararen normalizazioaren bidean herritarren ekarpena garrantzitsua dela diote bultzatzaileek

Elorriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) ziklo berri bat hasiko du Elorrioko Udalak. Orain arte egindako lana baloratu dute lehenengo, eta datozen bost urteetarako plangintza diseinatuko dute gero. Euskararen normalizazioaren bidean herritarren ekarpena garrantzitsua dela uste dute. Horregatik, batzar zabalak deitu dituzte irailaren 27rako eta urriaren 10erako. Elhuyar aholkularitza zerbitzuak gidatuko ditu

foroak. Aurrerapausuak aztertu eta hutsune eta hobetzekoak identifikatzeko aprobeztatu gura dute. Beste ildo batzuk jorratzeko asmoa ere agertu dute: euskararen alde sentsibilizazioa, konpromisoak aktibatzea eta elkarten arteko koordinazioa handitzea. Bilera biak Iturrin garatuko dituzte, 18:30etik 20:30era. Derrigorra ez den arren, 94 466 88 16 zenbakira deitzea eskatu dute, zein leku erabili jakiteko. ■ M. O.

Domekan egingo dute Elorrixoko Bira

Domeka honetarako antolatu du Erdella mendi taldeak Elorrixoko Bira. Hamazazpigarren edizioa beteko du mendi-irteerak; aurten ere, herriko mugarrietatik pasatuta egingo dute ibilbidea. Goizeko 07:30ean ipini dute elkartzeko ordua, plazan. Baina, buelta osoa beharrez laburragoa egingura dutenek 09:00etan joko dute mendirantza.

Antolatzaileek azaldu dute aurretiaz eman ahal dela izena, Erdella taldearen telefonora deituta. Egunean bertan ere egongo da aukera, 06:30ean. ■ M. O.

MALLABIA

Gurasoentzako euskara ikastaroa antolatu dute

Eskolak goizez eta arratsaldez izango dira

Mallabiko gurasoek euskara ikasteko ikastaroa antolatu du AEK-k. Eskolak goizez eta arratsaldez emango dituzte, txandakalan egiten dutenek euskaltegira joateko aukera izan dezaten. Ikastaroaren arduradunen berbetan, matrikula egiteko azkenengo eguna irailaren 26an izango da. Kultur Etxean izena eman daiteke edo Ermuko Kaltxango AEK-ra deitu, 943171940 zenbakira.

Ikastaro gehiago
Kirolzaleentzako Spinning eta mantenuzko gimnasia ere antolatu dituzte frontoian. Musikazaleek soina, panderoa eta txalaparta jotzen ikasi ahalko dute, baita gazte edo helduen abesbatza parte hartu ere. Umeentzako euskal dantza ikastaroa eta plazako dantza tradizionalak ere aukeran daude. Yoga ikastaroa eta KZgunea ere prest dituzte. ■ J.G.

ZALOA FUERTES
ARGAZKILARIA | PHOTOGRAPHER

tel (0034) 685704839
e-mail zaloa.fuertes@gmail.com
web www.zaloafuertes.com

Nik euskara irailaren 3tik 21era UDAL EUSKALTEGIAK

Matrikula zabalik 2013 IKASTURTEA

Dirulaguntzak eta hobariak - 16 urtetik gorakoentzat
Asteleheneetik ostegunera (10 ordu / 6 ordu)
Hizkuntza eskakizunak (1, 2, 3) prestatzeko ikastaroak
Autoikaskuntza zerbitzua internet-en bidez MOODLE
Gurasoak eta Udalgoneak - Ikasturteak: urritik ekainera

Bulego ordutegia: 10:00-13:00 / 15:30-18:30 - Ostiraletan 10:00-13:00
Saibi kalea 10, 3A - 94 603 00 40 - euskaltegia@durangoeuskaltegia.net

BERBAZ>

“Jendea irrikitan dago kalera irten eta konponbide duinak eskatzeko”

LABek antolatutako Ermua-Mallabia martxan parte hartu du Maria del Carmen Garcia sindikalista espainiarrak



Maria del Carmen Garcia

▪ SAT, Sindicato Andaluz de Trabajadoreseko kidea

ba orokorrak deitzeko unea da. Sindikatu handiak petatxuak ipintzen eta euren existentzia justifikatzen dabilta, baina sindikatuen papera eten barik kalean egotea da. Sindikatu handiek guri esana digute udako sindikatua garela. Pasatzen zai-guna da beste data batzuetan irteten garenean komunikabideek gure borroka ikusezinarazten dutela. Urte osoan egiten dugu lan.

Greba orokorraz berba egin duzu. Hego Euskal Herrian datorren asterako greba deitu dute. Tresna baliagarria da zuretzako?

Baietz uste dugu, eta greba egitea behar dela. Zenbat murrizketa beharko da greba orokor bat egiteko? Haratago jota, gutxi dela uste dugu; egun bateko greba ez delako nahikoa sisteman eragiteko. Momentu baten greba mugagabea egin beharko da.

Aste honetan Euskal Herrira gonbidatu zaituzte LABeko kideek. Zer iritzi duzu hemengo langile mugimenduaren egoeraz?

Kide askok pentsatzen dugu jarraitu beharreko eredia zaretela. Andaluzian greba orokor bat behar dela esaten gabiltzan artean, hemen deitu eta data bat jartzeko gai zarete. Egoera desberdinak dira. Gure borroka garrantzitsuena lurren jabegoarena da. Andaluziako juntak 20.000 hektarea pribatizatu gura ditu, eta lur hori egoera honetara ekarri gaituzten espekulatzailak baino ezin dute erosi. Lur publikoa krisiari aurre egiteko tresna izan daiteke. Eredua Marinaleda herria da. 2.700 biztanle ditu eta langabezia handia izan du. Lur-jabea lurra kentzea eta herriarena egitea lortu dute. Udalak kudeatzen du, eta asanblada bidez lan egiten dute. Arazo oso desberdinak dituzue Euskal Herrian, baina guretzako horko borroka aurrera joateko esperantza eta eredu da. ■ A.Ugalde.

Uda honetan supermerkatuetatik janaria ateratzen agertu dira telebistan SAT Sindikato Andaluz de Trabajadoreseko kideak. Komunikabideek euren jarduna sarritan isilarazi egin badute ere, kalean urte osoan daudela eta horren premia dagoela nabarmendu du SATeko kide Maria del Carmen Garcia.

Krisia hasi aurretixoan, 2007an, jaio zen SAT.

Hainbat antolakuntza sindikalek sortu genuen, baina SAT batez ere SOCetik sortu da (Sindicato Obreros del Campo), eta hau 1976an sortu zen, nekazarien eskubideak defendatzeko. Andaluzian 500.000 jornalari baino gehiago bizi zen garai hartan, ahal zuten moduan bizirautean, lursail handien jabeak aberasten ziren artean. Nekazaritza erreforma egin eta lursailak banatzeko borroka hasi genuen orduan. 2007an ikusi genuen journalarien arazoan antzekoak zeudela hainbat arlotan. Enpresetako eta produkzio sektoreko jendea batu eta SAT sortu genuen. Kalean lan egiteko,

a pie del tajo egoteko sindikatu bat sortu gura izan genuen.

Kaleko ekintzengatik ezagunak egin zarete. Hor dago abuztuaren supermerkatuetan egin zenuten ekintza.

Oihartzun handia izan du, bai, eta apur bat harritu egin gaitu. 30 urte baino gehiago daramatzagu lanean, ekintza asko egiten, eta komunikabideek ikusezin bihurtu izan gaituzte. Guretzat garrantzitsua da komunikabideetan agertzea jendeak gure borroka ikus dezan. Ez gaitu harritu komunikabide batzuek gu zoro eta lapurtzat hartu izanak, baina garrantzitsuena da beste askok gure salaketa zein zen azaldu dutela. Guk ez dugu ezer lapurtu; lapurretak ez dira komunikabideen aurrean egiten, gauzez eta ezkutuan baino. Familia askok bizi duten egoera larria salatu gura genuen.

Autoinkulpazio kanpaina ipini duzue martxan. Zelako erantzuna jasotzen ari zarete?

Harrituta gaude jende asko autoinkulpatu delako, Andaluziakoak eta Andaluziatik kanpoko asko ere bai. Kriminalizatu gura izan gaituzten komunikabideek, hori lortu beharrean jende asko supermerkatuetako ekintzekin identifikatuta sentitzea lortu dute. Egoera latza salatzearen salatu dituzte lagun batzuk, eta bitartean krisira eta hondamendi egoera honetara eroan gaituztenak lasai-lasai dabilta, oportetara joan eta komunikabideetan agertuz.

Andaluziatik journalarien martxa antolatu duzue. Parte-hartze handia izan du?

Andaluziako probintzia guztietatik antolatu genituen martxak. 150-200 laguneko martxak espero genituen. Jaenen, 700

“Kriminalizatu gura izan gaituzten komunikabideek jende asko supermerkatuetako ekintzekin identifikatuta sentitzea lortu dute”

“Sindikatu
papera eten barik
kalean egotea da”

lagun batu ziren, eta Sevillan gizarte mugimendu ugari batu ziren martxara. Jendea umezurtz xamar dagoela sumatzen dugu. Kalera irten eta konponbide duinak eskatu gura ditu, irrikitan dago herriaren ahotsa entzunarazteko. Ez gaude prest Espainiako eta Andaluziako gobernuen murrizketa gehiago entzuteko. Gu ez gara krisiaren errudunak izan. Jendeak kalean egon gura du esateko ez gaudela prest zor pribatua diru publikoagaz ordaintzeko.

Testuinguru honetan itzaropena mantentzea ez da erraza. Zein izan beharko litzateke sindikatuen papera?

Sindikatuok aldarrikapenerako eta borrokarako tresna gara eta herriaren ahotsa entzunaraztea da gure lana. Denok batu eta kalera irteteko ordua da. Zenbat murrizketa behar dira beste greba orokor bat antolatzeko? Gre-

**OPORRETARAKO
ETA ASTEBURUETARAKO
ESKAITZA EZIN HOBE
BATEKIN AMETS
EGITEN DUZU ?**

**hemen
duzu !!**

Astebeteko oporrak hondartzan
haurrekin, asteburu erromantiko
bat, itsaski-jana...
Mundu guztiak du ametsen bat,
zein da zurea?



COSTA DORADA

LES OLIVERES HOTEL ***
Irailan eta urrian. **Beraien artean
metagarriak diren 3 eskaintza
ezin hobe:**

- Mantenu osoa mantenu-erdiaren ordez
- Otorduetan ura eta ardoa barne
- 7 egun 6ren prezioan

Goza ezazu Ebroren Deltako natur
Parkearen xarmaz. Hotela hondartzatik
200 metrora dago eta Port Aventuratik
20 minutura baino ez.



ASTURIAS

LLANES. VILLA DE LLANES HOTELA***
Irailan eta urrian. 3 egun-
2 gau. Gosariak barne.

90€

**ESKAITZA!! ITSASKI JANA
ASTEBURUA**
Barne daude: 2 gau OG
erregimenean (ostirala eta
larunbata) + Itsaski-jana



KANTABRIA

**QUIJAS. POSADA LA VENTA
DE QUIJAS *****
Irailan, urrian eta
azaroan. 4 egun-3 gau.
Gosariak barne.

100€

**ESKAITZA!! 3 gau
2ren prezioan**



Oinarritiko prezioak pertsonako
logeta bikoitzean. Kontsultatu
dela eta antolatzaileen gainerako
baldintzak. Kudeaketa-gastuak 6€.
Plaza kopuru mugatua: ENK 018.



EROSKI bidaiak

Ametsetan? Egizu legan!



www.viajeseroski.es



@anbotokultura

KULTURA

IASMINA ETA ITZIAR BALENCIAGA > DANZA DURANGO ELKARTEA



Balenciaga ahizpak: ezkerretik bigarrena Iasmina, eta laugarrena Itziar.

“Sabel dantza ezagutaraztea da ikuskizunagaz lortu gura duguna”

Durangoko San Agustinen eskainiko du *Orient Express* ikuskizuna Danza Durango elkarteak, irailaren 28an. Iasmina eta Itziar Balenciaga ahizpa dantzariak aurkeztu dute hogei emakume inguru batzen dituen elkarte

Zelan elkartu zineten?

Iasmina Balenciaga: Durangoko Ibaizabal ikastolako Errota gimnasioan hasi ginen, hango ikastaro batean. Ikastaroa amaitu eta jarraitu egin gura izan genuenok taldea sortu genuen, eta jende berria ere hasi zitzaigun gehitzen.

Noiz eratu zenuten elkarteak?

Iasmina: Duela urtebete eratu genuen, izan ere, errazagoa baita San Agustinen egingo duguna bezalako ekitaldiak antolatzea elkarteak izanda.

Itziar Balenciaga: Horrela, entseatzeko leku bat ere badaukagu.

“Ikasi dugun guztia batu eta ikuskizun polit bat eskaintzea otu zitzaigun”

Zelan sortu zaizue San Agustín kulturagunean aurkeztzen duzuen lan honetarako ideia?

Iasmina: Urtero egiten dugu emanaldi bat ekainean. Tabirako jaietan egin izan dugu dantza, baita Galdakao eta Markinan ere, esaterako. Ikuskizun txikiak eskaini

izan ditugu aurreko horietan. Pentsatu genuen areto batean dantza egitea gustatuko litzaigukeela. Ikasten joan garen guztia batu eta ikuskizun polit bat eskaini genezakeela bururatu zitzaigun, eta horrela sortu zen ideia.

Zer eskainiko duzue San Agustín emanaldian?

Iasmina: Sabel dantza ezagutaraztea da ikuskizunagaz lortu gura duguna, jende askok ez baitu dantza mota hau ezagutzen. Fusioa da egiten duguna. Jende askok sabel dantzari buruz ideia oso partziala dauka: erdi-biluzik dantzatzearekin lotzen dute askok, baina hori baino askoz anitzagoa da sabel dantzaren kultura.

“Hemen aukera daukagu lotsa barik dantzatzeko”



Ekialdeko dantzen inguruan sortu zen Danza Durango elkarteak duela urtebete. Itziar eta Iasmina Balenciaga ahizpek aurkeztu dute elkarteak, eta baita datorren barikuan eskainiko duten ikuskizuna ere.

Lau-bost urte daramatzate Balenciaga ahizpa durangarrek sabel dantza egiten, eta Danza Durango elkarteak, Durangaldeko hainbat herritako lagunekin batera jarduten dute: hogei emakume baino gehiago batzen dira elkarteak. Bi talde daukate: bat, dantzan hasiberri direnek osatzen dutena, eta bestea, esperientzia dutenena.

Urteetako zaletasuna izateko eta neskek elkarte bat sortzea eramateko sabel dantzak zer daukan hain erakargarri eta berezi galdetu, eta bere erantzuna eman du bakoitzak: “Taldeko neskek oso gustora egoten gara elkarrekin: dantzak ikasten ditugu, gorputza mugitzen dugu...

Batez ere dantza eginez ondo pasatzen dugu”, dio Iasminak. Bere iritzia gehitu du Itziarrek: “Denoi gustatzen zaigu dantza egitea eta hemen aukera daukagu gure artean inolako lotsa barik dantzatzeko, berdin zaigu zelako gorputza daukagun...”.

Itziarrek jarraitu du: “Bakoitzak zerbait berezia dauka ondo egiten duena: batzuek sabel dantza purua egiten dute hobeto, askoz leunagoa den dantza tribala egiteko gorputzaren kontrol handiagoa dute beste batzuek... Lanetik arinetan etortzen naiz dantzan egitera, bestela zerbait falta zaidala pentsatzen baitut”.

Iasminak azaldu duenez, Ibaizabalgo Errotako ikastaroan ikasi zuten sabel dantzaren oinarria. “Gure kontura ikastaroetara ere joan izan gara Madril edo Bartzelonara, esaterako”.

Astero elkartzen dira entseguak egiteko, eta zabalik daude jende berria ere hartzeko.

“Jende askok sabel dantzari buruzko ideia oso partziala dauka”

Zeren ingurukoa da ‘Orient Express’ ikuskizuna?

Iasmina: Bidaia baten istorioa da: Saharan hasten dugu eta hainbat herrialdetik egiten dugu ibilbidea, hainbat dantza erakusten. Dantza gotikoa egingo duen Gasteizko dantzari bat eta dantza zingaroa egiten duen *Delirium* dantzaria ere gonbidatu ditugu.

Itziar: Igarotzen dugun herrialde bakoitzetik zeozer hartu eta sabel dantzarekin fusionatzea da ideia.

Jantziek eta eszenografiak garrantzia dute ikuskizunean?

Iasmina: Bai, saiatzen gara hori lantzen. Estilo desberdinak egiten ditugunez, arropa desberdinak ere erabiltzea gustatzen zaigu. Bisualki politagoa da. ■ I.E.

MUSIKA >



Xabier Arana eta Andres Granados musika ziklo honen antolatzaileak.

Organorako musikaren abaniko zabala erakutsiko dute zikloan

Bihar izango da Organo Kontzertuak 2012 zikloaren barruko bigarren emanaldia

Durangaldeko Herri Maite akordeoi taldeak eta Xabier Arana organo-jotzaileak eskainiko dute kontzertua, bihar, 20:00etan, Durangoko Andra Mariko basilikan. Organo Kontzertuak 2012 zikloaren bigarrena izango da, eta zinemako soinu bandak eskainiko dituzte.

Arandoño Kultur Elkarte sortuzela hamabost urte dira aurtan,

eta urteurren hori dela-eta, bost kontzertu antolatu dituzte. Hirugarren saiorako, Saskia Roures Zaragozako organista gonbidatu dute, 2010ean lehenengoz probatu zuten hitzaldi-kontzertu formatuan. Berbaldia eta kontzertu laburra eskainiko du, urriaren 27an, San Frantzisko monasterioan.

Bestalde, Durangoko bonbardaketaren 75. urteurrenaren hari-

ra, Donostiako Easo abesbatzaren eta Oscar Candendo organistaren saioa antolatu dute urriaren 13rako: Bakerako Musika.

Azaroaren 23an, Parisko Notre Dame katedraleko organista etorriko da, Jean-Pierre Leguay. Xabier Aranak "oso kontzertu berezia" izango dela adierazi du. Itsua da Leguay, eta organorako piezak inprobisatzen maisua. ■ I.E.

ANTZERKIA >

Heriotzari eta adiskidetasunari buruzko tragikomedia Arriolan

'Hil arte bizi' eskainiko du Txalok gaur Elorrioko antzokian, korapilatzen diren harremanak



Hil arte bizi antzezlanaren momentu bat; 22:00etan hasiko da gaur, Arriolan.

"Heriotzaz hitz egiten duen komedia eta adiskidetasunaz jarduten duen tragedia". Horrelakoa da, egileen berbetan, *Hil arte bizi*. Gaur, 22:00etan, Elorrioko Arriola antzokian izango dugu ikusgai.

Txalo antzerki konpainia gipuzkoarraren obra da Javier Veigak idatzirik hau, eta Begoña Bilbao zuzentzen du. Aktore hiru-

Hirukote ezaguna ariko da: Iker Galarza, Joseba Usabiaga eta Sara Cozar

kote ezaguna da ariko da protagonista: Iker Galarza, Joseba Usabiaga eta Sara Cozar. Nacho, Angel

eta Mariaren rolak jokatu dituzte *Hil arte bizi* antzezlanean.

Korapilatzen doazen maitasun eta adiskidetasun harremanak dira antzezlanaren haria. Ikuspuntu komikotik, hainbat galderak sakon planteatu dizkiote ikusleari: "Edozer barka zenezake maitasunagatik? Min egitea baino egia ezkutatazea hobea da?". ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Libe Mimenza
Kazetaria



OTORDU IKUSEZINA

Bazkal ostean edo lagun artean gai asko izan ohi ditugu hizpide. Hala ere, badaude espazio publikoan askotan aipatu ere egiten ez diren gaiak eta espazio pribatuan ia hausnartzen ez ditugunak. Gai asko daude ezkutuan, gai asko dira ikusezin.

Gai ikusezinen presentzia hutsa, neketsua eta emozionalgia izango da agian azaleko mundu honetako bidaia-riontzat.

Esaterako, heriotzaz hitz egin dezakegu, jazarpenaz, torturaz, antsietateaz, suizidioaz, zokoratzeaz, desberdintasunaz... Ez guke gaiok gure inguru hurbila kolpatu arte itxaron behar. Gai hutsalak digestio arinekoak dira bai, baina kolpeak, autopistetako peajeak bezain ekidinezinak. Ikusezintasunaren heziketa sozializatu beharko guke, mahai gainean dastatzekoak diren hausnarketa asko baititugu egiteke.

Has gaitezke lokaletik zein pertsonaletik eta globalera edota kolektibora salto egin, finean, hango eta hemengo gai ikusezinen gartzetako barroteak hautsi eta plazara ekarri.

Ikusezintasunaren mugetan barneratzeko aukera daukagu datorren astean Durangaldean. Herriak, Elorrio eta Iurreta. Formatua, film sozialak. Abiapuntua, 2012ko Zinema Ikusezinen Nazioarteko Jaialdia. Eta gaiak askotarikoak: urteetan luzatutako gatazkak, iraultzen bizipenak, autismoa, itxurakeria, elkarbizitza, munduarekin harremanetan jartzeko modua, jasangarritasuna edota zorientasuna.

Proposamen horiekin has dezakegu gai ikusezinen otordua, sarreran dastatzeko plater egokiak dira, konpainia onean askoz hobe. Hortik aurrera, osa dezala bakoitzak nahi duen menua. On egin!

ERAKUSKETA >

Ikuslearengan emozioak sortzeko, egurrezko eskulturen bilduma

Durangoko Museoan antolatutako erakusketan irailaren 30era arte egongo dira Juan Maria Estanconaren obrak

Durangoko Museoan dago ikusgai Juan Maria Estanconaren eskultura erakusketa. *Norberaren abstrakzioak, inoren emozioen hornitzaile* du izenburua, eta zuran landutako eskulturak batzen ditu. Irailaren 30era arte izango da bertan ikusgai.

bihotz-bihotzetik egindako omenaldia da erakusketakoa", artista-aren esanetan. ■ I.E.

Juan Maria Estancona:
"Zurari bihotz-bihotzetik egindako omenaldia da"

"Barneko niaren eta zuraren arimaren arteko sinbiosiak eman du erakusketa honetan ikusgai dauden obrak ernatzeko bide, lerro, bolumen eta formen uztarketa", dio Estanconak. "Zurari

"Sinbiosiak eman du obrak ernatzeko bide eta formen uztarketa"



IURRETA



anboto



Iurretako udalak jai zorientsuak opa deutsuez



lurretako JAI EGITARAVA

IRAILAK 21, barikua

• **18:00.** Pirritx eta Porrotx, frontoian.

IRAILAK 22, zapatua

• **07:00.** lurretako III. Mendi Martxa. Luzea, 37 kilometro. Ibilbide laburra (25 kilometro) 09:00etatik aurrera.

Inskripzioa:

www.zaldaimenditaldea.org

• **19:00.** Herri kirol desafio probalekuan.

IRAILAK 23, domeka Euskararen Eguna

• **09:00.** XXV. Ahari lurreta zikloturisten martxa.

Irteera eta helmuga San Migel plazan.

• **12:30.** Dantza kantulagun poteoa.

IRAILAK 27, eguena

• **19:00.** Antzerkia: *Mortimer*, Ibarretxe kultur etxean.

• **20:30.** Banderaren mendeurrena. Oroigarriak udaletxeko udalbatzar aretoan.

IRAILAK 28, barikua San Migel bezpera

• **12:00.** Montoitik txapliguak. Ostein, kalejiraren irteera dultzaineroekin.

• **12:30.** Umeen tailerrak musikagaz Amilburu plazan.

• **14:00.** Herriko nagusien bazkaria. Jarraian, erromeria Iñaki Uribesalgo soinu-joleagaz.

• **14:30.** Gazte bazkaria, plazan.

• **16:30.** Umeentzako magia ikuskizuna, Dantzarin.

• **18:00.** Ohiturazko Donien atxa jasotzea. Dantzarien azken entsegua.

• **22:00.** Erromeria, Laiotz taldeagaz. Ondoren DJa.

IRAILAK 29, zapatua San Migel Eguna

• **06:00.** Gaupaseroen argazkia, plazan.

• **10:30.** Dantzari eta Agintarien kalejira, Montoitik plazara.

• **11:00.** Meza nagusia. Ostein, Dantzari Dantza.

• **12:30.** Bertsolariak: Eneko Abasolo 'Abarkas', Gorka Lazkano eta Igor Elortza.

Ostein, igel txapelketa.

• **17:00.** Asto Probak: Partiliku Elkartea, Bitorio Zelaia, Zubibarri.

• **18:30.** Dantzari Dantza eta neskek egindako Soka Dantza.

• **20:00.** Tortilla txapelketa. Partaide bakoitzak behar dituen osagaiak eta tresneria eroan behar ditu.

• **21:00.** Lau t'erdiko Bertso pelota: Olaetxea-Urrutikoetxea pelotariak.

• **22:30.** Erromeria, Luhartz taldeagaz.

IRAILAK 30, domeka Umeen Eguna

• **12:00-14:00.** Umeen parkea, puzgarriak eta tailerrak.

Euria eginez gero, Maiztegi frontoian.

• **14:30.** Gastronomía txapelketa. Munduko Arrozak. Partaide bakoitzak behar dituen osagaiak eta tresneria eroan behar ditu.

• **16:00-19:00.** Umeen parkea, puzgarriak eta tailerrak.

Euria eginez gero, Maiztegi frontoian.

• **18:00.** Asto Probak: Irazola, Igor Otaolea, Satxibar.

Ostein saribanaketa.

URRIAK 4, eguena

• **09:00.** lurretako Kale Azoka, trikitalariekin batera.

URRIAK 5, barikua Txapela buruetan eta ibili jaixetan

• **18:00.** Umeentzako berbena.

• **19:30.** Poteoa tabernaz taberna, fanfarreak lagunduta.

• **22:30.** Rock kontzertua: Skasti + Zea Mays + Tximeleta.

URRIAK 6, zapatua Mozorro Eguna (zoologikoa)

• **11:00.** Emakumeen kemena kriterium soziala.

• **12:00.** El Despiste fanfarria, Dantzari plazan.

• **12:30.** Poteoa.

• **14:30.** Herri bazkaria, plazan.

• **17:00.** XIV. Bizikleta Festa. Irteera, San Migel plazan.

• **17:30.** Lagunarteko Olinpiadak.

• **18:30.** Paitta Txakur txapelketa.

• **22:00.** Bertsolariak: Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Miren Amuriza.

• **24:00.** Erromeria Gozo-gozo taldeagaz. Ostein, Venezuela eta Bartzelonako DJ Merei eta lagunak.

URRIAK 7, domeka Errosario Eguna

• **10:00-15:00.** XIII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka, Andaparapen.

• **10:30.** Dantzari eta Agintarien kalejira, Montoitik Plazara.

• **11:00.** Meza nagusia. Ostein, Dantzari Dantza.

• **12:30.** Makailaua pil-pil eran txapelketa gastronomikoa.

• **18:30.** Dantza saioa:

– Maiztegiko umeak

– Jare dantza taldea (Gasteiz)

– lurretako dantzariak:

Gorulari dantza eta Dantzari Dantza. Ostein, jaietako errifa zozketa egingo dute.

• **20:30.** Herri afaria, Arantxa eta Pantxogaz batera.

• **22:00.** Jaien amaiera, ohiturazko bertsoak kantatuta. Erromeria, gauerdira arte.



Txapela buruan eta ibili... Iurretan

Aurrekontu txikiagoagaz jai egitaraua mantentzea izan da jai batzordearen erronka, eta lortu dutela diote

Aurtengo jaiak 40.000 euroko aurrekontua izan dutela azaldu dute Aitte San Migel jai batzordeko kideek: "Aurrekontua gutxitu egin da, eta gure erronka egitaraua mantentzea izan da. Lortu dela uste dugu". Giro berezia sortzen duten bi mozorro egunak ere mantendu dituzte. Txapela kentzeko moduko ahalegina, urriaren 5eko mozorro egunean txapela jantztekoa izango dena.

Hasiara ofiziala San Migel bezperan (irailaren 28an) izango den arren, jai giroa bariku honetan bertan hasiko dute Iurretan, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Zazpikoloro* ikuskizunagaz. Horrez gainera, domeka honetarako Euskararen Eguna antolatu dute eta erromeri ibiltaria egingo dute Iurretan barrena; dantza eta kantu poteoa edukiko dute eguerdi partean. Zaldai mendizale taldearen mendi martxa eta herri kirol desafioak ere izango dituzte asteburuan.



Berrikuntzen artean, paita-txakurren erakustaldia antolatu dute

Iurretako neskek erakustaldia egingo dute lehenengo aldiz Probalekuan

Paita-txakurrak eta arroza

Berrikuntzen artean, mozorro egunerako paita-txakurren erakustaldia antolatu dute. Gainera, makailau txapelketaz aparte, umeen egunean, irailak 30, Munduko Arrozak lehiaketa egingo dute: "Arroza umeek gustura jaten dute eta jai

eguna egunpasa eginez pasatze-ko aukera egongo da".

Dantza saioak ere ez dira faltako. Aipatzeko modukoa da azken domekako jarduna: Maiztegiko umeek, Gasteizko Jare dantza taldeak eta Iurretako dantzariak erakustaldia eskainiko dute.

Desafioak eta antzerkia

Asteburu honetan bertan, zapa-tuan, herri kirol desafioak egingo dituzte, Harria elkarteak antolatuta. Iurreta Garairen kontra lehiatuko da, eta Iurretako neskek erakustaldia egingo dute lehenengo aldiz Probalekuan. Bi herrien arteko norgehiagokak ikusmina sortu du.

Anderebide elkarteak urtero legez antzerkia ekarriko du jailetara, Haritza Rodrigezen *Mortimer*. Irailaren 27an izango da, euskaraz eta helduei zuzenduta

Zoologikoa eta 'Txapela buruetan eta ibili jaixetan'

Duela urte bi Migeltxu Kajoi izan zen, iaz Bariku Zuria eta aurten ere, jailetako bigarren barikua berezia izango da sanmigeletan.

Urriaren 5erako mozorro egun berezia deitu du jai batzordeak, *Txapela buruetan eta ibili jaixetan* izenburuagaz.



Azaldu dutenez, kalera buruan zeozer eroanda irtetzea izango da kontua. Mozorroa librea izango da, eta buruan, kaskoa, zapia, txapela, antenak, ileordea, lorontzia... garrantzitsuena gainean zeozer eroatea izango da.

Hurrengo egunean, zapa-tuan, zoologiko bihurtuko da Iurreta mozorro egunean. Zoologikoko pertsona edo animaliez jantzteko deia egin du jai batzordeak, eta herri bazkarirako, zelan ez, derrigorra izango da mozorrotuta joatea.

Mozorro eguneko bazkarirako txartelak Ibaiondo tabernan ipini dituzte salgai, 15 euroan. Azaldu dutenez, urriaren 3a izango da txartelak erosteko azken eguna.

Parques
y Jardines



LORAZAINTZA • KIROL ZELAIK • HIDROEREITEA • GOLF ZELAIK

Gaztañatza auzunea - 48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 94 681 37 93 / 94 681 26 33 / 94 621 55 80
Faxa: 94 681 90 82
parques@parquesjardines.euskalnet.net



Motorren konponketa,
Harilketa, Koadroen
automatismoa, Argiteria
publikoa, Pabiloiak eta
Etxebizitzak

Elektrizitatea

GURE ETXEA, S.L.

Mallabiena auzoa, 56 behea
Tel.: 94 681 28 62 Faxa: 94 681 88 77

48215 Iurreta
(Bizkaia)

Kantulagun dantzagarriagaz ospatuko dute Euskara Eguna

Musikariekin girotutako poteoan abestu eta dantzan egiteko aukera eskainiko dute



Lau teilatu, Markosen txarrie, Martxa baten lehen notak, Txantxibiri, Gaztelugatxe, Antoni eta Anton, Kontrapas, Aita semeak, Txatxamatxalinatxu, Furra furra. Abesti horiek Iurretako Kantulagun ekitaldian abesteko aukeratutako piezetako batzuk dira. Domeka eguerdian jai giroagaz bat egitea eta jendeak parte hartzea da Euskara Egunaren lehenengo edizioaren helburua. Baina, ez da ohiko Kantulaguna izango. Abestiez gainera, beste osagai bi gehitu dizkiote ekitaldiari: dantza eta poteoa. Zapatu eguerdian Iurretako herrigunean dabilen edonork berbak konpartitu eta abestu ahalko du. Antolatzaileek azaldu dutenez, erromeria giroa sortu gura dute abesti eta dantzekin. Kantulagun berezia lehenengoz antolatu duten arren, eguerdian herrigunean jende ugari biltzea espero dute.

Plateruena kantutegia prestatzen
Plateruenerako lagunek Kantulagunean duten esperientzia aprobetxatuz prestatu dute Iurretako kantutegia. Hilean behin talde finko bat elkartzen da Durangoko antzoki-kantulagunean. Ekimen horrek geroago

eta arrakasta handiagoa du gainera. Antzokiko taldean daude Beñat Aiartza (gitarra) eta Ugaitz Catalan (ahotsa), eta eurek gidatuko dute Iurretako ekitaldia. Durangon

Beñat Aiartzak eta Ugaitz Catalanek gidatuko dute ekitaldia

Galdakaoko Oxabi taldeak jarriko du dantzarako erromeria doinua

Kantulagunean kalera irten direnetan hainbat lagun batu zaizkie eta Iurretan ere jendeak parte hartzea itxaroten dute.

Oxabiren erromeria
Galdakaoko Oxabi taldeak jarriko du dantzarako erromeria doinua. Bibolina, trikixia, panderoa, txistua eta alboka uztartzen ditu taldeak. Erromeria guztietan jendea mugiarazten dituen erritmo ezagunak joko dituzte Iurretan: Zazpi jauzi, Polka eta beste hainbat dantza ezagun, iurretarrak borbilean dantzan egitera erakartzeko. Dultzaineroak ere gonbidatu dituztenez, jende nahikoa batzen bada, Larrain Dantza ere dantzatuko ei dute. Abesti eta dantza artean, egarria asetzeko poteoa ere egingo dute.

Euskara Eguna prest
Iurretako Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren baitan antolatu du Euskara Eguna. "Hainbat aukera genituen Euskara Eguna antolatzeko. Azkenean, egunez jendeak parte hartzeko ekitaldi bat egitea pentsatu dugu". Horrela azaldu dute jaien antolatzaileek.

Punterengo bertsolarien saioa gidatuko du Elortzak

Iurretako bertso saioa zita garrantzitsua izaten da Durangaldeko bertsozaleentzako. Urriaren 6an, punterengo bertsolariak igoko dira frontoiko taula gainera: Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Miren Amuriza. Aurtengo nobedadea gai jartzaillea izango da. Bizkaiko Txapelketa burubelarri prestatzen dabilen bertsolaria izango da gaiak proposatzen jardungo duena: Igor Elortza. Iaz Unai Iturriagak jarritako

Egaña, Iturriaga, Arzallus, Lujanbio, Maia eta Miren Amuriza arituko dira bertsoan

gaiak arrakasta handia izan zuten, mailari eusten saiatuko dela aurreratu du Elortza durangarrak.

Irailaren 29an, berriz, eguerdiko 12:30ean bertsoan jardungo du Elortzak berak, Eneko Abaso *Abarkas* eta Gorka Lazkanogaz batera.

Munduko Arrozak txapelketa, umeen egunean

Paellan, entsaladan, ortuariekin, kubatar erara... Munduko Arrozak lehiaketa gastronomikoan derrigorrezko osagai bakarra arroza da. Gainerakoak parte-hartzaileek aukeratu ahalko dituzte. Eguerdiko 12:30erako jaki guztiak prest egon behar dira. Irabazleak otzara bat irabaziko du eta gainerako parte-hartzaileei ardo botila emango diete.

Antolatzaileek azaldu dutenez, lehiaketa Umeen Egunean egitea hainbat arrazoiengatik erabaki dute. Alde batetik, umeen jolasetan txikiak dauden bitartean gurasoak arroza prestatzen egon daitezkeelako. Bestetik, jai giroa goizetik arratsaldera luzatzeko aukera bat delako.

SERAPIO CALVO
eskaiolazko dekorazioak

- SABAI ERREGISTRAGARRIAK
- PLADUR SABAIK
- APALAK

Tailerra
Bidebarrieta, 7 behea • Tel.: 94 681 15 12 • Faxa: 94 466 81 00
e-posta: serapiocalvo@euskalnet.net

IURRETA

ARRIBIDE



Ondo pasa San Migeletan!

Tel.: 94 681 83 81

'Zazpikoloroa' ekarriko dute Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek Iurretara

Munduko koloreak "Beleko maltzuraren atzaparretatik" askatu beharko dituzte

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoen *Zazpikoloroa* ikuskizuna eskainiko dute, gaur, 18:00etan, Olaburu pilotalekuan. Abentura berri munduko koloreak zain-tzeko ardura izango dute.

Ikuskizunak hari hau jarraitzen du: hiru pailazoak Irriaren Hirira gonbidatuko dituzte, Zazpikoloroaren Festara. Zazpikoloroa hurrengo egunean jaiotzekoa

da eta zeregin garantzitsua izango du bere bizitzan, mundua kolorez betetzeko ardura. Baina, gauerdian, Beleko maltzurak Zazpikoloroaren arrautzak bahituko ditu. Ondorioz, mundua arrisku handian dago. Nork eutsiko dio bizi-pozari kolore bako munduan?

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek ez dute horrelakorik onartuko eta, Patakon gidari hartuta,

goiza argitzerako Zazpikoloroa askatzen saiatuko dira. Lortuko ote dute arrautzak Belekoiren atzaparretatik askatu eta munduari kolore guztiak itzultzea?

Gortasunagaz hartuemana
Zazpikoloroa ikuskizunean zehar *Eskuetan* izeneko abestia kantatuko dute, zeinu hizkuntzagaz lagundatutako koreografiagaz. Gorta-

sunaren gaia plazaratu eta zeinu hizkuntzaren bidezko hartueman normalizatuak aldarrikatu eta sustatu gura dituzte. Abestiaren letra Jon Maia bertsolariarena da eta Euskal Gorra erakundeak lagundu die berbak zeinuen mundura eroaten. Gurasoek zein gaztetxoek erraz ikasteko koreografia osatu dute, zeinu ofizialak eta zeinu ikonikoak modu erakargarrian bateratuta.

Magia eta umeen parkea
Pailazoen gainera, gaztetxoentzako egitarau zabala antolatuko dute jaietan. Irailaren 28ko barikuan umeentzako tailerrak egongo dira Amilburu plazan. Besteak beste, globoflexian adituek globoekin irudiak egingo dituzte eguerditik aurrera. Arratsaldean, magia ikuskizuna eskainiko dute Dantzarin.

Irailaren 30ean, goizez zein arratsaldean, umeentzako parkea atonduko dute plazan, puzgarriekin. Azkenik, irriaren 5ean, 18:00etan, Traperos del Rio musika berbenak gerria mugitzera gonbidatuko ditu bertaratzaren direnak.

'Eskuetan' abestia kantatuko dute, zeinu hizkuntzagaz lagundutako koreografiagaz

Irailaren 28an umeentzako tailerrak egongo dira Amilburu plazan



Repara Tu Vehículo

Bestelako mekanika posible da

Konpondu zure autoa zuk zeuk **BEZaren aurkako promozioekin**

www.reparatuvehiculo.es

PROMOZIOAK

OLIOA+OLIO FILTROA EROSIZ
15 MINUTU DOAN BOXEAN

AURREKO+ATZEKO FRENOAK EROSIZ
FRENO GARBITZAILEA DOAN

OLIOA+OLIO ETA ERREGAI FILTROA EROSIZ
30 MINUTU DOAN BOXEAN

N-634 errep. Durango-Bilbao 82km. • UEI-3 ind. 5 behea - 48215 lurreta • Tel./Fax: 94 681 79

www.anboto.org

@anboto

Anboto komunikabideak

LAGOI S.L.

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA

Biltegia:
Arriandi auzoa z/g ¥ Iurreta
Tel.: 94 621 33 22
Faxa: 94 621 58 74

Erakusketa:
Montebideo etor. ¥ Durango
Tel.: 94 621 52 84
Faxa: 94 621 52 85
www.lagoi98.com

ondo pasatu jaietan!

Eguneko menua
Enkargatutako afariak
Asteburuetako afariak

Iurretako BATZOKIA

C/Bixente Kapanaga, 21 - Tel: 94 620 27 64

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

IZARBE

Ondo pasatu San Migelak!

Lanparak, oparitzeko gauzak, sukaldeko eta komuneko altzariak

TIEN 21

Bixente Kapanaga, 3 - 48215 lurreta Tel.: 94 681 22 80 Faxa: 94 621 63 36 izarbek@izarbek.com

ASIMAIR

COMPRESORES

SALMENTA ETA ASISTENTZIA
TEKNIKO ZERBITZUA

Arriandiko industriagunea - UA14 - 13. arloa 5.pabilioia. 48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 94 620 24 15 - 94 620 20 64 Faxa: 94 620 37 86 E-maila: asimairs@teletelne.es

OKINDEGIA

ALBERDI

Mallabiena, 1 - Tel.: 94 681 03 62 - IURRETA

Rock eta ska zaleek beteko dute urriaren 5ean San Migel plaza

Hiru talde igoko dira datorren barikuan lurretako plazako eszenatora: Zea Mays, Skasti eta Tximeleta

Urriaren 5erako antolatu dute jaietako kontzertu nagusia. Skasti, Zea Mays eta Tximeleta taldeek jardungo dute, 22:30ean. Orain bi urteko San Migeletan ere jardun zuen Zea Mays talde bilbotarrak. Taldearen *Era* izeneko azken diskako hainbat kanta lehenengoz entzuteko aukera izan zuten 2010eko lurretako jaietan, kontzertu hartara hurreratu zirenek. Zea Maysen musikariek azaldu dutenez, abenduan eskainiko dituzten

“kontzertu bereziekin” emango dute *Era* diskoaren bi urteko aurkezpen bira amaitutzat. Aurreratu dutenez, beste disko bat presatzen hasiko dira datorren urtean.

Zea Maysen kontzertua eskainiko du Skasti taldeak. Duela zazpi urte, 2005eko udan sortutako taldea da Skasti, eta punk, ska eta reggae doinuak jorratzen dituzte taldeko zortzi musikariek.

Herriz herri, plazaz plaza erromeria giroa sortzen hamabi urte daroatza Tximeletak, eta talde horrek itxiko du urriaren 5eko kontzertu hirukoitza. Errepertorio zabal eta anitza eskainiko dute: abesti mexikar tradizionalak, kalejirak, fandangoak, eta folk, pop edo rock kanten bertsoiak eskainiko dituzte.

Erromeria giroa ere aukeran

Dantzarako musikak lagunduta gaua pasatzeko hainbat aukera eskaintzen ditu gainera, lurretako San Migel jaietako egiterauak: Laiotz, Luhartz eta Gozo-gozo taldeek eskainiko dute, esaterako, dantzarako musika. Bestalde, jaien amaierako herri-afarian, Arantza eta Pantxo ariko dira.



Orain bi urteko San Migeletan ere jardun zuen Zea Maysen lurretan

Punk, ska eta reggae doinuak jorratzen dituzte Skasti taldekoek



Durangaldeko tontorretan ibiliko dira mendi martxan

Ibilbide bi antolatu ditu Zaldai Mendi taldeak: 37 kilometroko luzera dauka batek, eta 25ekoa besteak

Herriko mendizaleen Zaldai taldeak lurretako San Migel jaien barruan mendi martxa antolatzen du, duela hiru urtetik hona, eta aurtengo ibilaldia bihar egingo dute.

Ibilbide bi prestatu dituzte parte hartzen dutenentzako: batetik, 37 kilometroko luzerakoa (07:00etan aterako dena), eta bestetik, 25 kilometroko ibilaldia (09:00etan

aterako dena). Bata zein bestea lurretako plazatik aterako dira.

Mendiola, Urkiolamendi, Saibi, Errieltabaso eta Leungane pasatuko dituzte ibilbidean. Zaldai elkarteak banatuko duen horniduraz gainera, lurretako plazan luntxa izango dute amaieran, eta opari bana jasoko du parte-hartzaile bakoitzak.

Hirugarren urtea da jaietan mendi ibilaldia antolatzen dutena

Amaieran luntxa eskainiko dute antolatzaileek lurretako plazan



Ondo pasa San Migeletan!

Hamabosgarren aldia beteko du Elikadura eta Artisautza Azokak

30 postutik gora ipini eta okela pintxoak banatuko dituzte Andaparapeko azokan



Hamabost urte. Dagoeneko tradizio bihurtzen ari den ekitaldia da Euskal Elikadura eta Artisautza Azoka. Jaietako azken egunean egin ohi da, eta aurten urriaren 7an izango da. 11:00etatik 15:00etara egongo da zabalik, Andaparapen. 30 postutik gora ipiniko dituzte nekazari eta artisauek, eta urtero legez okela pintxoak ere banatuko dituzte. Aurreko edizioetan arrakasta handia eduki du azokak, eguraldi ona edo txarra egin berdin-berdin. Udalaren ekimenez ospatzen da, eta antolaketa lanean dabiltzanek adierazi dute aurten ere harrera berbera edukitzea espero dutela. "Agintarien kaljira ostean izaten denez, jende asko batzen da azokara".

Artisauen lanak eta baserritarren ekoizpenak egongo dira ikusgai postuetan. Antolatzaileek baieztatu dute denetariko elikagaiak ipiniko dituztela: pastelak, gaztak,

Egunerako prest egoteko, bezperan hasiko dira txahala sutan ipintzen

barazkiak, eztiak, txakolina, sagardoa... Eusko Labeld un produktuak ere eroango dituzte. Gainera, txahal-okela dastatu ahal izango dute Andaparapera hurreratzaren direnek. Pintxoak 1,5 euroan salduko dituzte, 12:00etatik aurrera. Egunerako prest egoteko, bezperan hasiko dira txahala sutan ipintzen. Asko prestatu arren, normalean pintxoak amaitu egiten direla azaldu dute antolatzaile taldekoek.

Txahalaz eta 30 postuez aparte, egongo da bestelako ekintzarik. Umeengan eta gurasoengan ere pentsatu dute, umeentzako tailerrak eskainiko dituzte-eta azokak irauten duen bitartean.

Lau t'erdiko pilota partida jokatuko dute, bertsolariekin

Euskal Herrian sustraitutako jarduera bi nahastuko dituzte lurretan: bertsoa eta pilota. Mikel Olaetxea eta Mikel Urrutikoetxea pilotari profesionalak lau t'erdien barruan jokatuko dute buruz buru. Baina, aholkulari edo botillero bereziak edukiko dituzte Olaburu frontoiko jaialdian; Eneko Abasolo *Abarkas* eta Anjel Mari Peñagarikano ariko dira bertso-botillero. Beraz, pilotariek bertsolarien aholkuei jarraituta egingo dute partidua. Irailaren 29an izango da jaialdia, gaueko 21:00etatik aurrera.

Eneko Abasolo 'Abarkas' eta Anjel Mari Peñagarikano ariko dira bertso-botillero

'Kaiola' barruan pilotari gazte bi ikusteko aukera emango du bertso-pilotak. Joko bizia eta entrenigarria ekarri ahal du lau t'erdiko neurketak. Urrutikoetxea zaratamozko ikusmin handia sortu du, aspaldian Bizkaitik sortutako promesa onetsuena da-eta. Estilo klasikoak berea, aireko jokoa beharrezko botekoa erabiltzen duena batez ere. Nerbio handiko pilotaria da, gainera. Hasiera batean bere gorputzak kontrakoa eman dezakeen arren, indar handikoa da eta ondo jotzen du pilota bi besoekin. Olaetxea lizartzarra, baina, ez da partidua erraz ipintzera etorriko.

GOIURIA
JAIETXEA
ERRETEGIA

Goiuria auzoa 16 - 48215 Iurreta - Tel.: 94 681 08 86

www.asadorgoiuria.com

IURRETAKO JAIETAN ETOR ZAITEZ GURE TERRAZAKO KARTA EZAGUTZERA

Plater konbinatuak, razioak, ...

IBAI-ONDO

KAFETEGIA

Goizeko 06:00etatik aurrera gosariak eta pintxoak

ONDO PASATU JAIETAN!

Bixente Kapanaga, 11 • 48215 IURRETA

☎ 94 620 21 57

UNDARRI BIKE

Bidebarrieta, 5 - bajo
48215 IURRETA
undarribike@undarribike.com

Bizikleten salmenta eta konponketa.

94 681 78 08
www.undarribike.com

KENAI

ileapaindegia, estetika eta lasaitasun zentroa

www.kenaizentrua.com

kenai@kenaizentrua.com
<http://twitter.com/kenaizentrua>
www.facebook.com/pages/kenaizentrua/158433980921655

Dantzari Auzunea 6, 5 behea
48.215 Iurreta (BIZKAIA)

☎ 94 657 09 70 | 688 877 455

IK

Iurreta
kopistegia

INPRENTA DIGITALA

Bidebarrieta, 1 behea (Korreos ondoan)
48215 IURRETA
Tel. 94 681 10 70
planos@iurretakopi.com
mac@iurretakopi.com

Betikoak

flexografia • ofizinarako zigituak • fotolitoak

Bixente Kapanaga, 9 • 48215 IURRETA Tel.: 94 620 22 41

"Egitaraua ondo lotzeak ematen du lan gehien"

Miren Abasolo (35 urte) jai batzordeko kidea da; ardurak eta festa zelan bateratzen dituen azaldu du

Urte asko daramatzazu jai batzordeko partaide?

Institutu sasoian hasi nintzen, beraz urte batzuk bai. Hasieran, behar zenean laguntzen nuen; ekitaldiren bat antolatzen, esaterako. Ostean, jendeak jai batzordea utzi ahal, diru kontuak eroaten hasi nintzen.

Zenbat kidek osatzen duzue jai batzordea?

Bederatzi lagun gabiltza. Azken urteetan behera joan da kopurua. Maiatzean hasten gara batzartzen eta atea zabalik dago denentzat. Guk herritar denei gonbita luzatzen diegu euren proposamenak ekartzeko.

Jaiak jai batzordeak bakarrik antolatzen ditu?

Orain lau-bost urtera arte jai batzordeak bakarrik antolatzen zituen eta udalak diruz laguntzen zuen batzordea. Gure ekitaldirik gehienak plazan izaten direnez eta udalak jaiak herrigunera ere zabaldu gura zituenez, ekitaldi batzuk antolatzeko prest zeudela esan ziguten. Guri ondo iruditu zitzaigun. Ekitaldiak plazakoen ordu berean ez antolatzeko bakarrik eskatu genien. Udalak artisautza azoka eta umeentzako zein jubilatuentzako ekitaldi batzuk antolatzen ditu. Herriko hainbat elkarteren parte-hartzea ere badugu, Anderebide, Iurreta Txirindulari Elkartea, Olaburu pilota elkartea, Zaldai mendi taldea, Harria herri kirol elkartea eta gazte asanbladarena.

Antolaketa, zer da gatzena?

Egitaraua osatu eta dena ondo lotzeak ematen du lan gehien. Denen gustua egitea ez da erraza. Aurreko egitaraua eredu moduan hartuz, tradizioa duten ekitaldiei eutsi egiten diegu eta ahal den heinean nobedadeak

sartzen saiatzen gara. Esaterako, orain urte bi bariku gau berezia antolatzen hasi ginen, gai bat ipini eta denak moztortzera gonbidatuz. Aurten *Txapela buruan eta ibili munduan* da gaia. Buruan zerbait eramatea da kontua, txapela edo... Bakoitzari okurritzen zaiona. Gauza berriak egitea gatzena da; horregatik oso inportantea da ahalik eta gehien proposamenak jasotzea.

Ardura handia duzue dena antolatzen. Zelan eroaten da erantzukizuna?

Jaiak ez dira hasi eta amaitzeko desiratzen gaude! Brometan diot, baina egia da erantzukizun handia dela. Dena sasoiz eta ahalik eta ondoen egiten saiatu arren, beti dauka kontrolatu ezin diren gauzak. Horrek nerbioei eragiten die.

Ardura horiek uzten dizute jaiak zeuk gura legez ospatzen?

Ez nahi moduan. Badaramatzat pare bat urte nekatuta amaitzen eta haserretu behar ez dudanarekin haserretzen. Batzuetan, nerbioen ondorioz, ezagunekin husten dut barrena, eta badakit ez duela merezi.

Jaietako zein ekitalditan parte hartzen duzue gusturen?

Irailaren 28an gozatzen dut gehien, Sanmigel bezperan, herriko giroan batzen gara eta egun berezia izaten da. Bestela, goizetik gauera, ekitaldi askotan egotea egokitzen zait, baina ez dibertsiorako, dena behar moduan irteten ari dela segurtatzeko baino.

Jaiak amaitzen direnean askatuta sentituko zara.

Bai, egindakoa eginda dago eta lo trankilago egiteko modua izaten dut. Trankilago, baina ez trankil, ze orduan beste lan potolo bat hasten da: ekitaldi guztietako fakturen justifikazioak egitea.

Azken urteak zelakoak izan dira jaietara etorri den jende kopuruari dagokionez?

Onak. Oro har jendea mugitzen dela uste dut eta ekitaldietan ere parte hartzen duela. Mozorro eguneko bazkaria gero eta koardila gehiago animatzen da. Gero, badaude ekitaldi batzuk urtero jende asko batzen dute-



nak: bertso saioa, erromeriak eta asto probak, esaterako. Txosnen kokalekuak ere eragiten du jai giroa toki batean edo bestean sortzerakoan. Sasoi batean txosnak herrigunera egoten ziren eta han inguruan sortzen zen jai giro handiena. Orain, txosnak plazan egotera, egunez zein iluntzeetan, beti dago giroa plazan. Arlo horretan ere gatzena da denen gustura egitea.

Zelakoa da batzordekideok udalagaz duzuen hartuemanak?

Azpiegitura aldetik laguntzen digute. Jasotzen dugun diru laguntza 23.600 eurokoa da. Krisia hasi zenetik %20 jaitsi da laguntza. Jai batzordean aurrera jarraitzeko asmoa dugu, garrantzitsua deritzogulako udalaz aparte jaien antolakuntzan eragingo duen talde bat egotea. Guretzako, jaiak herritik sortuta eta herriarentzat direnez, lanean jarraitzeko asmo sendoa dugu.

"Tradizioa duten ekitaldiei eutsi egiten diegu eta ahal den heinean nobedadeak sartzen saiatzen gara"

"Guretzako, jaiak herritik sortuak eta herriarentzat direnez, lanean jarraitzeko asmo sendoa dugu"

"Maiatzean hasten gara batzartzen eta atea zabalik dago denentzako, proposamenak ekartzeko"

AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.
TEL.: 946 812 123 FAXA: 946 203 818

UAI, 1 INDUSTRIAGUNEA
(Orozketa errepidea)
48215 Iurreta / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA
GASA
BEROGAILUA
ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6 - 48215 Iurreta - Tel.: 94 681 88 62 - mallabiena@mallabiena.com

AURKEZPENA > PROGRAMAZIOA

Iurretako liburutegian abiatu dituzte udazkenerako apustuak

“Adin tarte guztientzako ekintza sorta” pentsatu dute, irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz

Urteetan arrakasta handia eduki duten ekintzetariko asko “planteamendu berriagaz” eskainiko dituztela azaldu du Ziortza Onaindiak,

Iurretako Herri Bibliotekaren kudeatzaileak. Martitzenean aurkeztu dute liburutegiaren udazkenerako eskaintza zabala.

“Adin tarte guztientzako pentsatutako ekintza sorta” eratu dute, “irakurzaletasuna bultzatu eta kalitatezko kultur ekintzak eskain-

tzeko”, aurkezpenean azaldu duenez. Onaindiaren esanetan, “gure apustua eta erronka orain arte bereizi gaituen kalitatea eta eskaintza mantentzea eta ahal bada hobetzea da”. Helburu horren isla argia da kaleratu duten iraila-abendurako egitaraua: zero eta zazpi urte arteko umeentzako tailer bi, umeentzako zein helduentzako irakurketa klubak, gazteei zuzenduriko sorkutza tailerra, eta beste hainbat ekitaldi.

Iñaki Totorikaguena alkateak adierazi duenez, “argi daukagu Bibliotekak bere hormak gainditu eta kalera atera behar duela jendea egitarau zabalagaz erakartzeko”. Iurretako Herri Bibliotekagaz batera, urteetan elkarlanean jardun duten herriko hainbat elkartegaz eta herriko ikastetxeekin lan eginda antolatu dute udazkene-

ko egitaraua. Eragile horiek Herri Bibliotekaren helburuak gauzatzeko eskaintzen duten laguntza eskertu gura izan dute arduradunek aurkezpenean.

‘Azalerako ipuinak’

Aurten lehenengoz, *Azalerako ipuinak* izeneko tailerra eskainiko dute, dagoeneko egonkortuta dagoen zazpi urte artekoentzako Bularretik Mintzora tailerraren osagarri. Zero eta hiru urte arteko umeei eta euren gurasoei zuzenduriko eskaintza da: abestiak, ipuinak, hitz jokoak, poemak eta masajeak baliatuta, umeak literaturaren mundura hurrertzea da tailerraren helburua. Sora Bikandik gidatuko du. Urriaren 24an abiatuko dute tailer hori, eta aldeztu aurretik Herri Bibliotekari bertan eman beharko da izena.

Gainera, aurreko urteetan publiko leiala izan duten hainbat ekimen ere mantendu egingo dituzte Iurretako Herri Bibliotekari: umeentzako ipuin-kontalarien hileroko emanaldiak, emakumeen literatur tailerra, edota gazteenzako komiki digitalen tailerra, esaterako. ■ I.E.



Aurten lehenengoz, ‘Azalerako ipuinak’ tailerra eskainiko dute

ARGAZKIGINTZA >

Bost aipamen berezi jaso dituzte Durangoko bi argazkilarik nazioartean

Mundu osoko 10.000 lan jaso dituzte IPA Awards argazki lehiaketan; tartean, Deser Studioko bi profesionalenak

IPA Awards argazki lehiaketaren profesionalen sailean jaso dute Durangoko Deser Studioko Sergio Zubizarreta eta Argi Aranbarririk epaimahaiaren aipamena: umei egindako erretratuen sailera bidali duten argazki batek, ezkontzetako hiru argazkik eta erretratu batek jaso dute aipamen berezia.

“Hau bezalako profesionalen lehiaketa batean aipamena jasotzea itzelezko poztasuna da guretzat”, esan du Sergio Zubizarretak. Argazkigintzan egiten duten lanak Durangaldetik kanpo zer maila eman dezakeen neurtzeko helburuagaz aurkeztu zituen Deser Studiok argazkiak lehiaketara, eta

emaitza oso pozgarria izan da. “Gutxinaka goaz hau bezalako nazioarteko lehiaketei beldurra kentzen, eta geure buruan konfiantza hartzen”.

Mundu guztiko argazkilarien 10.000 argazki baino gehiago jaso dituzte aurten IPA Awards-etan. Saritu dizkietenak euren “estiloko” argazkiak direla dio Zubizarretak: “Oso argazki naturalak dira, oso soilak baina asko zaindutako teknikagaz egindakoak”. Umei egindako erretratuen argazkigintza eta ezkontza erreportajeak dira Deser Studioko argazkilarien espezialitatea, eta modari loturiko lana ere egiten dute. ■ I.E.



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

IRAILAK 21 22:00etan
MORTIMER
ANTZERKIA. Sarrera: 5euro.

IRAILAK 27 20:00etan
KANTULAGUN
Gonbidatu bereziak: Tapia eta Leturia
Izen-ematea irailaren 17tik aurrera

IRAILAK 29 11:00etatik aurrera
DASTAKETA EKOLOGIKOA
Elikagai ekologikoen gaineko topaketa
11:00 aurkezpena, 13:00 ardo dastaketa, 14:30 bazkaria

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

KANPOALDEA TOKI BAT DA
Arena en los bolsillos teatro
(1-4 urte bitartekoentzat)

Irailak 23 • 12:00/17:30

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

“Zure martxari eutsiko dion auto bat bilatuko dut.

Eta emandako hitza betetzen ez badut, behar izanez gero Australiaraino bultzatuko zaitut olatu handiaren bila.”

Andonik esana



RENAULT CLIO AUTHENTIQUE
1.5 dCi 70ZP
2008. Urtekoa

7.900€*

**RENAULT
OCASIÓN**

*PSPak transferentzia-gastuak barne ditu. Eskaintza 2012/07/31n amaitzen da edo izakinak amaitzean. Irudiko modeloa Renault Clio Dynamique da.

RENAULT recomienda **elf**



GAURSA ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBO www.gaursaautoak.com
BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU www.bilboberri.com

@anbotokirola

KIROLAK >

“Aukerarik onena xabalina da eta ezin dut aukera hori pasatzen utzi”



Arantza Moreno, astelehenean, Arripausuetako atletismo pistan, denboraldiaurreko lehenengo entrenamendu saioan.

Arantza Morenok (17 urte, Ermua) hiru urte daramatza xabalina jaurtiketa praktikatzen Bidezabalegaz. Berea da gazte mailako Espainiako errekorra. Eskubaloian ere goi mailan dabil. Eskubiko beso baliotsua du.

Zelan hasi zinen xabalina jaurtitzeko?

Kuriosoa da, gaixotasun baten ondorioz deskubritu nuen xabalina. Umetan korrika aritzen nintzen Ermuko atletismo taldean. Apendizitisa operatu zidatenean, ezin nuen korrika egin eta xabalina jaurtiketa probatu nuen, gel-dirik ez egotearen.

Abuztu amaieran, Espainiako txapelketan, zeurea zen gazte mailako errekorra hobetu zenuen (49,90 metro). Ezuste-koa izan zen?

Bai, ez nuen espero. Txapelketa abuztu amaieran zenez, sasoiari eusteko Leongo (Espainia) errendimendu altuko zentrorra joan nintzen hilabetez. Jaurtiketetan espezializatuta dago zentro hori. Gehienbat sasoiari eusteko eta belauna zaintzeko joan nintzen, ez nuelako ondo. Hango probetan 47 metro bota nuen gehien. Espainiako txapelketan inguru horretan ibiliko nintzela uste nuen. 49,90 metro botatzea sorpresa izan zen.

Ahal duenak hobetu dezalal

Neuk ere marka ona dela uste dut. Marka hori 600 gramoko xabalinagaz lortu nuen. 500

gramokoagaz ere neurea da errekorra, 53,95 metrogaz.

Zelan entrenatzen da xabalina jaurtiketa?

Xabalina jaurtiketa batez ere teknika da. Indarra garrantzitsua da, baina puntu batetik aurrera teknika da behinena. Hori lantzeko ariketa bereziak daude.

“Xabalina batez ere teknika da; hori lantzeko ariketa bereziak daude”

Datorren urtean gazteetatik junior mailara pasatuko zara. Salto berri bat.

Maila horretako jaurtitzaila asko ezagutzen ditut. Xabalina jaurtiketan urte askoan bazabiltza hiru-lau urte zaharragoak edo gazteagoak direnak ezagutzen dituzu normalean. Juniorretan maila handiagoa dago.

Dena dela, Espainiako txapelketan maila denetako bigarren jaurtiketarik onena egin eta zila-

rra jantzi zenuen. Eman dezake-enari eskatu egiten zaio.

Bai, baina ni apurka-apurka joango naiz, estutu barik. Badakit oraindik hobetu beharra dudala alderdi askotan. Nire entrenatzaileagaz batera horretan gabiltza.

Ermuko eskubaloi talde batean ere jokatzeko duzu.

Atletismoan hasi eta handik hiru-lau hilera hasi nintzen eskubaloian. Kirol biak nahiko batera etorri ziren. Ermuko Errotabari taldean nabil gaur egun.

Euskadiko eta Espainiako selekzioekin ere aritu zara.

Bai. Euskadiko selekzioagaz bost urte daramatzat. Espainiakoagaz Islandiara joan ginen Europako txapelketarako sailkatzeko. Sailkapena lortu genuen, baina ezin izan nuen Europako txapelketara joan egun horietan atletismoko munduko txapelketa zegoelako.

Egunen batean bi kiroletako bat aukeratu beharko duzu.

Aukeratu dut dagoeneko: atletismoa eta xabalina jaurtiketa. Eskubaloian jarraitzen dut, baina zelanbait esanda bigarren maila

batean. Entrenatzaileak beti esaten dit eskubaloia aukeratzeko, oraindik ahalegintzen da ni konbentzitzen. Baina nahiko garbi dut. Nire aukerarik onena xabalina dela uste dut eta ezin dut aukera hori pasatzen utzi. Hemendik urte batzuetara nire burua atletismoan ikusten dut. Gainera, gurako banu uste dut eskubaloira bueltatu ahalko nintzela, baita utzi eta handik denbora batera ere. Eskubaloian ikasitakoa ez da hain erraz ahazten. Xabalina jaurtiketan teknika astero-astero landu beharra dago.

Kirol desberdinak dirudite.

Oso desberdinak dira eskubaloia eta xabalina jaurtiketa. Lehenengo taldeko jokoa da eta lagunekin inguratuta zaude. Bigarrena bakarkako kirola da. Xabalinan garaipenak lortzean badakizu zure lanaren ondorio dela, baina porrotean ere bakarrik zaude.

Ez dago magoa izan beharrik asmatzeko eskuin beso horretan badagoela indarra. Kirolari ezagunen antzera aseguru egin beharko duzu.

Gurasoek batzuetan esaten didate brometan besoa aseguru egin beharko nukeela badaezpada (barreak). Sustoren bat izaten badut orduan joango naiz beharbada. ■ J. D.

Ahari lurreta martxak 25. aldia egingo du

Lurreta Txirindulari Elkarteak antolatzen duen Ahari lurreta martxa zikloturistak 25. aldia egingo du domekan. Martxa ez lehiakorra da eta 09:00etan irtengo da Aita San Miguel plazatik.

Izena egunean bertan eman daiteke, plazan bertan, lasterketa hasi aurretik. Federatuentzat hamar euro da izena-ematea (lizentzia aurkeztu beharko dute) eta federatu bakoentzat 22 euro. Kuotan sartuta daude jan-edana eta lasterka amaieran banatuko duten oparia. Gehienez 300 txirindularik parte hartu ahaliko dute martxan. ■ J. D.

Patagoniarako bidaia antolatu du Alpinok

Durangoko Alpino-Tabira mendizale taldeak Patagoniarako (Argentina) hilabeterako bidaia antolatu du, abenduaren 21etik urtarrilaren 13ra.

Mendizale taldeko bazkideentzat 3.475 euro da prezioa eta bazkide ez direnentzako ehun euro gehiago. Izen-ematea modu bitara egin daiteke: Goienkaleko Alpinoko lokalean edo e-postaz idatzita: alpino@alpino-tabira.org. Hamabostentzako lekua dago.

Patagonian egunero trekking ibilbideak egingo dituzte han inguruko toki ikusgarrietara eta, besteak beste, Perito Moreno glaziarra bisitatuko dute. ■ J. D.

Bihar mendi bizikleta martxa dago Otxandion

Otxandioko VIII. Mendi Bizikleta Martxa egingo dute bihar, zapatuan. Ibilbide bi prestatu dituzte eta biak plazatik irtengo dira. 40 kilometroko ibilbide luzeari 09:30ean ekingo diote eta 17 kilometroko laburragoari, 10:00etan.

Izena egunean bertan eman daiteke, proba hasi aurretik. Federatuentzako prezioa 10 euro da eta federatu bakoentzat 12 euro. Autoa Mainondoko pilotalekuan edo igerilekuan aparkatzea gomendatu dute. Amaieran, bertan izango dira dutxa hartzeko eta bizikleta garbitzeko aukerak. ■ J. D.

Autokrosean Espainiako onena da Arkaitz Uranga

Citroen Saxoaren bolantean eta 1.600 zilindradara arteko mailan Espainiako Autokros Txapelketa irabazi du gidari mallabiarrak



Arkaitz Uranga, ezkerrean, Citroen Saxo autoagaz eta txapelkunari dagokion garaikurragaz.

Orain hamar urte Euskal Herriko Autokros Txapelketa irabazi zuen Arkaitz Urangak (29 urte, Mallabia; Marikan bizi da). Ostean, errepideko txapelketetan zentratu zen, eta lasterketa bat baino gehiago irabazi zituen. Hala ere, onartzen duenez, "beti izan dut Espainiako txapelketan noraino heldu nintekeen jakiteko gogoia". Orain hiru urte, errepideagaz nekatuta, berriro autokrosa probatzea erabaki zuen Citroen Saxoaren bolantean. Estreinakoan, laugarren amaitu zuen Espainiako txapelketa. Iaz, denboraldi erdian utzi egin zuen, federazioaren jardunagaz ez zegoelako ados. Aurten, goi mailan ibili da eta Espainiako autokros Txapelketa irabazi du 1.600 zilindradara arteko mailan. Joan zen astean, Miranda de Ebron (Espainia) bigarren amaituta lortu zuen garaikurra.

Txapelketa sei lasterketek osatu dute eta Urangaren eta Ivan Posadoren arteko lehia estua izan da ia beti. Mallabiarrak hiru lasterketa irabazi ditu, birritan geratu da bigarren eta behin ezin izan zuen amaitu, arazo teknikoengatik.

Galizian jokatuak azken aurreko lasterketan izan zituen arazo teknikoak. Txapelketa ia guztiz erabakita uzteko aukera izan zuen, baina autoak ez zuen mar-

txan ipini gura izan. Kanpoko laguntza jaso zuen eta lasterketatik kanpora utzi zuten.

Posadogaz tira-bira

Beraz, Miranda de Ebroko azken lasterketan erabaki zen txapelketa. Urangak bazekien podiumean sartzea nahikoa zuela txapelketa geratzeko adina puntu batzeko. Posadok ere bazekien hori. Uranga lasterketa irabazten saiatu zen, baina Posadogaz ukitu batzuk izan ostean, hanka altxa eta zuhur jokatzeko erabaki zuen: "Azken lasterketan nahiko zikin jokatu zuen Posadok. Pena da, ordura arte hartueman ona genuelako". ■ J. D.

na da. Gainera, sasoi puntu onean dago, irail hasieran Lezamako VII. Mendi Lasterketa irabazita erakutsi zuen moduan.

Emakumeetan iaz Maite Maiorak irabazi zuen, eta aurten txapela berritzen saiatuko da. Aurten mendiko lasterketan kopako azkenengo proban (Kantabria) laugarren izan zen.

Ibilbide bi prestatu dituzte

Atleta Beteranoen Euskal Elkar- teak antolatu du Sorginen Lasterketa, Atxondoko Udalaren laguntzagaz. Lasterketa domekan, 09:30ean, hasiko da Axpen. Ibilbide bi prestatu dituzte. 25 kilometroko ibilbide luzeak 1.400 metroko desnibel positiboa du. Olarreta, Larrano, Pol-Pol, Besaide eta San Roke- tik ibiliko dira, Axpeko plazan helmugaratu aurretik. Ibilbide laburra 15 kilometrokoa da eta Topen amaituko da. ■ J. D.

Ariznabarreta igoera bertikalen Euskadiko txapelketa da

Ariznabarreta favorito da Sorginen Lasterketan

Sorginen Lasterketako bosgarren aldia jokatu dute domekan, Atxondon

Atxondoko lurretan eta Urkiola- ko Parke Naturalean zehar ibiliko dira domekan, Sorginen Lasterketako bosgarren aldiko parte-hartzaileak.

Gizonen artean, Oier Ariznabarreta durangarra irabazteko favoritoen artean dago. Gaur egun, Ariznabarreta kilometro bertikalen Euskadiko txapeldu-



Oier Ariznabarreta, mendi lasterketa batean.

ADITUAREN TXOKOA

Kepa Arroitauregi
Pilota teknikaria



Pilotaz blai

Nire lerro hauek irakurtzen dituzenerako agian Durangaldeko azken urteetako pilotari handiena San Mateo lehiaketako finalean izango da (atzo zen jokatzekoa bere bigarren partidua), ala ez. Dena den, uda dotorea borobildu duela esan daiteke. Nola ez, Pablo Berasaluze berriztarraz ari naiz. Eskuzko pilotarien artean, gaur egun, artista nagusia dela esaten ausartzen naiz. Magia berezia daukanetakoa da tantua bukatzerakoan zein ikuslearengana heltzerakoan. Jokuan dagoenean, pilotazalea gozaraztea erraza da berarentzat.

Hala ere, pilotazale gehientzat esku pilota profesionala bakarrik existitzen bada ere, euskal pilota hori baino askoz gehiago da. Pilota afizionatuan (eskuz) asteon hasi dira bertan -Durangaldean- bi lehiaketa handi eta ospetsu; Baque eta Olazar. Euskal Herri osoko pilotari handienak gure pilotalekuetan ikusteko aukera izango da. Trinketea ere oso bizirik eta present dugu Bizkaian, batez ere Durangaldean, Abadiño-ko Tornosolo tarteko. Gaur hasten da bertan Euskadiko elite lehiaketa, zeinetan berriz ere txapelarako hautagai diren Uriarte, Antxia edo M.Gonzalez bezalako pilotariak.

Eta Durangaldean ezezik, bertoko pilotariak Mundialean izango dira aurki; Dublinen jokatu den One Wall Mundialeko partaide izango dira Itsaso Pradera eta Amaia Araistegi mallabiarrak zein Egoitz Amantegi abadiñarra. Astelehenean bertan hasiko dituzte entrenamendu bereziak.

Ikusten duzueenez, jarraituena bai baina pilota ez da etxe askotan ostiral, larunbat eta igandero ikusten dugun hori. Merezi duen besterik ere bada.

Iurretak bost pilotarigaz hasi du Cafes Baque txapelketa

Markinaren atzetik lurreta da ordezkari gehien dituen herria pilota txapelketan

Herenegun hasi zen Cafes Baque pilota txapelketako XXVII. aldia. Urtero legez, jardunaldi guztiak eguaztenetan jokatu dira Mañaria, Atxondo, Abadiño eta lurretako pilotalekuetan. Aurten, lurretako Olaburu frontoiak hartuko ditu finalak, abenduaren 2an.

Ohikoa den legez, buruz buru jokatu dute gazteek eta kadeteek, 24na pilotarigaz maila bakoitzean. Joko sistema betikoa da: maila bakoitza lau multzotan banatu dute, bakoitza bere multzoburuagaz.

Iurretak bost ordezkari ditu txapelketan: Mikel Bereinkua gaztea eta Gorka Otadui, Aitor Elordi, Eneko Calleja eta Ekaitz Andueza kadeteak. Markinaren atzetik, ordezkari gehien dituen herria izan da lurreta. Zoritxarrez, eguazteneko lehenengo jardunaldian galdu egin zuen Mikel Bereinkua eta kanpogan geratu da.

Zaldibarrek pilotari bi ditu, Julen Calleja kadeteetan eta Mikel Pradera gazteetan, eta Otxandio bat: Ibon Urrejola gaztea. ■ J. D.

Denboraldia derbiagaz hasiko dute Elorriokok eta Abadiñok

Asteburu honetan Hirugarren mailako eta Euskal ligako denboraldiak hasiko dituzte areto futboleko. Durangaldeko bost talde dabilta maila horietan.

Euskal Ligan derbia jokatu dute Elorrioko Buskantzak eta Abadiñoeko Lagunek. Elorriokok maila galdu zuen iaz. Abadiñoeko Lagunek, aldiz, Mai-

la gorenetik Euskal ligara igo- tzea lortu zuen. Elorriokoren antzera, iaz mailaz jaitzi zen Sasikoa taldeak etxean ekingo dio denboraldiari Eskolapioak taldearen aurka. Kurutzia- ga Ikastolak, berriz, Kukuigaren kantxa bisitatuko du, Etxebar- rin.

Mallabia Santurtziren aurka Mallabiak bigarren denboraldia hasiko du Hirugarren mailan. Eurak dira Durangaldeko talde erreferentea gaur egun. Domekan, etxean hasiko dute denboraldi berria Santurtzi taldearen aurka. ■ J. D.

Mallabiko mendi duatloiak Euskal Herriko txapelketa erabakiko du

Irailaren 30ean jokatu den mendi duatloian kirola eta jai giroa uztartu gura dituzte

Mendi duatloien zirkuituko hirugarren proba hartuko du Mallabiak irailaren 30eko domekan. Aurtengo bigarren aldiak Euskal Herriko txapelketa ere hartuko du. Herri ekimen bidez antolatu dute mendi dua-

toia. Aurten, kirol probari jai giroa gehitzen saiatu dira antolatzaileak. Horrela, lasterketa amaitzen denean herri bazkaria egingo dute, aurten lehenengoz, pilotalekuan. Bazkalostean iazko lehenengo aldiko irudiekin landutako bideo

emanaldi bat eskainiko dute. Errifentzozketa ere orduan egingo dute.

Horrez gainera, iaz legez, gaztetxoentzako duatloia ere prestatu dute goizerako. Adin tartetean banatuta, hamalau urtera arteko gaztetxoek ere badirela nor erakutsiko dute.

Ibilbideari dagokionez, aurtengoa iazkoa baino leunagoa izango da. Xabat Areitoaurtena da duatloiko antolatzaileetako bat eta, bere esanetan, "herri giro gehiago animatu zitezten" leundu dute ibilbidea: "laz sailkapenaren erditik gora amaitu zuten guztiek azpimarratu zuten lasterketa zoragarria zela, baina gogorra. Erdetik atzerakoek alderantziz zioten, lasterketa oso gogorra zela, baina ederra". Oraingoz, ibilbidearen moldaketak eman ditu fruituak eta Mallabiko zazpi lagunek eman dute mendi duatloirako izena.

Zehazki, korrika osatu beharreko zirkuituari 25 bat metroko desnibel positiboa kendu diote eta bizikletako tarteari

70 bat metroko desnibela. Hala eta guztiz ere, duatloi gogorra izaten jarraitzen duela diote antolatzaileek, baina iazkoa baino eramangarriagoa. ■ J. D.

DATUAK

EGITARAU (irailak 30)

- **10:00etan:** Gaztetxoek zuzendutako duatloia.
- **11:00etan:** Mendi duatloia- ren hasiera plazan.
- **14:30ean:** Herri bazkaria frontoian.

IBILBIDEA

- **Korrika:** 3,3 kilometroko zirkuituari bi itzuli. San Pedrorra igoko dira.
- **Bizikletan:** 7,8 kilometroko zirkuituari bi itzuli. Arietzo mendirantz eta Zengotita auzo ingurutik.
- **Korrika:** itzuli bat.

IZEN-EMATEAK

- **Lasterketarako:** www.mendiduatloia.com
- **Herri bazkarirako:** mallabiamendiduatloia@hotmail.com

Oiarbide hamar onenetan sartu da munduko txapelketan

Lourdes Oiarbide txirrindulari arabarrak (Beste Alde Rent A Car-Orue) hamargarren amaitu du munduko txirrindularitza txapelketa erlojupekoa gazteen mailan. Martitzenean Herbehereetako Limburgo probintzian jokaturako proban emozioa izan zen nagusi eta Oiarbidek gertu izan zuen brontzeko domina; hirugarren sailkatua- rengatik hamabi segundora helmugaratu zen. Oiarbideren esanetan, pozik dago bere denboragaz eta baita munduko hamar onenen artean sartu delako ere.

Jonathan Castroviejo, aldiz, espero baino pattalago aritu zen. Abadiñon bizi den getxoztarrak 22. postuan amaitu zuen erlojupekoa, Tony Martin irabazlearengandik 3.23ra. Saio osoan eritmoa hartu ezinda ibili zela adierazi du Castroviejok, batez ere hasierako kilometroetan. Londresko Joko Olinpikoetan lortutako bederatzigarren postua hobetzea zuen helburu Movistarreko ziklistak. ■ J.D.



lazio lehenengo aldiko parte hartzaile bi.

Abadiñon gaztetxoek futbol txapelketa, bihar

Athletic Clubeko kimu mailako gaztetxoek jokatu dute txapelketa, besteak beste



lazio kadete mailan antolatu zuten txapelketa.

Abadiñoko Kirol Elkartek kimu mailako Abadiño Cup futbol txapelketa antolatu du zapatarako. Hamar urtera arteko jokalariekin, talde hauek parte hartuko dute: Abadiño, Athletic Club, Santanderko Racing, Osasuna, Barakaldo, Danok Bat eta Antiguoko.

Txapelketa Astolako futbol zelaian jokatu dute. Sailkapen

faseko partiduak 09:00etan hasiko dira; azken faseko partiduak, berriz, 17:30ean. Estreinuak partiduan Abadiñok Barakaldo izango du aurkari.

Sarrera hiru euroan ipini dute. Abadiño Kirol Elkarteko jokalaria eta bazkideentzat bi euro da eta 18 urtetik beherakoentzat, berriz, doakoa. ■ J.D.

Urratsez urrats helmugaraino!

*¡Bienvenido!
Has llegado a
Durangaldea*

*Bine ai venit!
Ai ajuns
In regiunea Durango*

*Durangaldera heldu zara,
ongi etorri!*

*Vous êtes arrivé
à Durangaldea,
nous vous souhaitons
la bienvenue!*

*Welcome!
You have arrived
at Durangaldea*

*مرحبا! لقد وصلت
إلى دورانغليدا*

*欢迎光临! 欢迎来到
Durangaldea!*

Matrikulatu
Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoko
euskaltegietan

94 623 2522
Laubideta 6, 48200 DURANGO - euskera.mdurango@bizkaia.org

www.euskaragida.com webgunean zure euskara maila ezagutzeko aukera izango duzu. Sartu eta zure euskara maila ezagutu ostean animatu zaitez euskararen urratsak ematera!

Eskaintza osoaren berr bertan aurkituko duzu.
Sartu eta animatu!

www.euskaragida.com

AISIALDIA >

amalurra



Zabalarra ikastetxeari eman diote mugikortasun iraunkorraren saria

'Oinezbusa'-gatik saritu dute Zabalarra ikastetxea, gurasoen laguntzagaz eskola-umeak ikastetxera oinez joateko ekimenagatik

azko ikasturtean Eskola Bidea egitasmoan parte hartu zuen Zabalarra ikastetxeak. *Oinezbusa* ipini zuten martxan; etxetik eskolarako joan-etorriak auto barik eta era autonomoan egitea zen helburua. Aurreko ikasturtean Landakon egindako esperientziatik hartu zuten horretarako eredia. Esperientzia pilotu horren bidez, herritik mugitzeko modu jasangarriago eta osasuntsuagoen inguruan hausnartu gura zuten. Ikasleek guraso talde batez lagunduta egi-

ten zuten eskolara bidea astebetetz. Egin-dakoaren aitorpentzat, mugikortasun iraunkorraren saria eman dio Durangoko Udalak Zabalarra ikastetxeari. Astelehenean izan zen sari-emate ekitaldia udaletxean, eta ikastetxeko ordezkariak eta guraso batzordeko kideak egon ziren bertan. Mari Jose Balier alkateordearen eskutik jaso zuten errekonozimendua.

Ekainean egin zuten *Oinezbusa*, astebetetz. Fray Juan de Zumarraga, Aramotz,

Ezkurdi eta Pinondo kaleetatik eta udaletxetik taldeka joan ziren eskolara, oinez. Ingurumenagaz errespetuzkoa izatea, umeen autonomia garatzen laguntzea eta herritarrak sentsibilizatzea gura zuten goizero ekimenagaz. Guraso bat aurretik zutela egiten zuten bidea ikasleek. Praktikan ipini aurretik, ordea, prestaketa lanetan ibili ziren udal teknikariek. Umeen artean inkesta bat egin zuten lehenengo. Hurrengoa ondorioztatu zuten: %85,1ek oinez egiten zuten eskolarako bidea, %10,5ek kotxez eta %3,6k bizikletaz. Ibilbideetako gune arrakatsuak identifikatzen ere jardun zuten. Esperientzia pilotuagaz gustora azaldu ziren gurasoak.

Mugikortasun Iraunkorraren Astea
Zabalarra eskolari emandako saria Mugikortasun Iraunkorraren Asteko ekitaldien baitan egin da. Aste berezi hori bihar amaituko da, Auto Bako Egunean. Ezkurditik hasita, goizeko 10:00etan bizikleta martxa izango dute Durangon. Elorrioren antolatutako mugikortasun iraunkorrari buruzko ekintzak, eta herriari buelta emango diote bizikletan; 11:00etan geratu dira udal-letxe aurrean.

Etxetik eskolarako joan-etorriak auto barik eta era autonomoan egitea zen helburua

Herritik mugitzeko modu jasangarriago eta osasuntsuagoen inguruan hausnartu gura zuten



laguntzaileak



Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

EDERTASUN GIDA

ILEAPAINDEGIAK



- Jon Sopelana
- Lunik ileapaindegia dauka Durangon



Ile lehorrari aurre eginez

Uda osterako tratamendu berezia daukazue luniken. Uda amaierara heltzen dabil, eta bere eragina nabarmena da azal eta ileetan. Lehortasuna nagusitu da. Eguzkia, kloroa, kresala eta udako gainerako faktoreek sortutako kalteari buelta eman behar zaio. Faltan dagoena berriro eman behar diogu ileari. Luniken, kontsulta eta diagnostiko baten bitartez jakiten dugu faltan dagoena zer den. Arazoa gure eskuetatik kanpo gertzen bada, trikologoak tratatzen du, ilearen medikuak. Hilean behin etortzen da lunikera. Debalde, ileari eta azalari oreka lortzeko zer kome-ni zaien esaten du. Gure produktu naturalekin hori lortzen dugu.

BEZ zergaren aurrean, deskontuak egingo dituzue.

Gaur egun, %50eko deskontua daukagu lehortzearen kontrako tratamendu hauetarako. San Fausto jaietara arte mantenduko dugu deskontua. Orohar, BEZa %50 baino gutxiago igoko dugu. Beraz, zergak guri eragingo digu %50 baino portzentaia handiagoan. BEZ zerga ez dut tindaketetan aplikatuko urrira arte.

Londresera zoaz laster, ikastera. Sanfaustoen ostean Londresera joango gara Miriam lankidea eta biok, astebeterako. Mozketen, tindagaien eta modaren inguruko ikastaro bat hartuko dugu. Gainera, nazioarteko azoka bat ere egiten da bertan, urtero, sasoi horretan. Gauza berriak ikustera goaz. Horregatik urriaren 21etik 29ra itxita egongo da gure ileapaindegia.

ESTETIKA ZENTROAK

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

ZIRKIN ESTETIKA
Jaione Llanos San Anton

AURPEGI ETA GORPUTZ TRATAMENDUAK
MANIKURA ETA PEDIKURA
DEPILAZIOA
BETILEETAKO PERMANENTEA
ETA TINTEA
...

Bruno Mauricio Zabala 5
Tel.: 692 150 173 - Durango

Ana Camarero
• estetika zentroa •

LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdiaren aurretik.



Irailaren 27an, 20:00etan, Plateruenean

KANTULAGUN

Tapia eta Leturia musikariak gonbidatu dituzte Durangoko Platerueneko ikasturteko lehenengo Kantulagun saiora. Astelehenerik eman daiteke izena kurtso berriko Kantuzaleen txokoa parte hartu ahal izateko.

ANTZERKIA

DURANGO

- » Irailaren 21ean, **Mortimer**, 22:00etan, Plateruenean.
- » Irailaren 23an, Arena En Los Bolsillos taldearen **Kanpoaldea toki bat da**, 12:00etan eta 17:30etan, San Agustinen.

ELORRIO

- » Irailaren 21ean, Txalo Produktzioak taldearen **Hil arte bizi**, 22:00etan, Arriolan.

BERBALDIA

DURANGO

- » Irailaren 25ean, **Zure umeari bularra emateko arrazoiak**. Euskadiko Esnearen Ligaren batzarra, 18:30etik 20:00etara, Pinondo etxeko Andragunean.
- » Irailaren 28an, Josune Muñozen (Skolastika) **Album ilustratutik komikira: literatur formatu berriak**, 19:00etan, udal liburutegian.

BERTSOAK

ZALDIBAR

- » Irailaren 21ean, **Maialen Lujanbio** eta **Unai Iturriagagaz** bertso afaria, 21:00etan, Goierriko auzo-etxean.

ERAKUSKETA

DURANGO

- » Irailaren 30era arte, **Juan Maria Estanconaren** eskulturak, Arte eta Historia Museoa.
- » Irailaren 30era arte, **Gervasio Sanchez** argazkilaria **Desagertuak**, San Agustinen.

IKASTAROA

BERRIZ

- » Irailaren 28a baino lehen eman behar da izena, Txintxaun Kolektiboak gidatuko duen **antzerki tailerrean** eta **zeramika tailerrean** parte hartzeko. Kultur Etxean (94-6827860) eman daiteke izena.

DURANGALDEA

- » Matrikula zabalik AEKren eskutik Durangaldean euskara ikasi eta hizkuntza eskakizunak prestatzeko. Izen-ematea: Durango: 94 681 73 49; Elorrio: 94 658 21 11; Zornotza: 94 673 43 70.

JAIK

IURRETA (San Migel)

- » Irailaren 21ean, **Pirritx eta Porrotx**, 18:00etan, frontoian.
- » Irailaren 22an, **Mendi martxa**, 07:00etan eta 09:00etan, plazan.

- » Irailaren 23an, **Ahari lurreta** zikloturisten martxa, 09:00etan, plazan. **Kantulagun**, kaleetan zehar, 13:00etan. **Erromeria**, 19:00etatik 21:00etara.

- » Irailaren 27an, **Mortimer** antzezlan, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. **Iurretako bandaren oroigarriaren aurkezpena**, 20:30ean, udaletxeko pleno aretoan. **Ostean, luntxa**.

- » Irailaren 28an, **Txapliguak** Montoitik, 12:00etan. **Dultzaine-roekin kalejira**, ondoren. **Umeen tailerrak**, 12:30etan. **Jubilatu bazkaria**, 14:00etan. **Ostean, erromeria** Uribesalgogaz, Olaburu frontoian. **Gazte bazkaria**, 14:30etan, plazan. **Umeentzako ikuskizuna**, 16:30etan. **Donien Atxa jasotzea** eta **Dantzarien azken entsegua**, 18:00etan. **Laiotzegaz erromeria**, 22:00etan. **Ondoren, dj saioa**.

DURANGO (Goienkale)

- » Irailaren 21ean, **Txaranga poteoa**, 19:00etan. **Aurreskua**, 20:00etan.
- » Irailaren 22an, **Umeentzako jolasak**, 11:00etatik 14:00etara. **Tabira musika banda**, 12:30etan. **Sardina-jana**, 14:00etan. **Mus**

- » **txapelketa**, 17:00etan Maite tabernan. **Umeentzako jolasak**, 16:00etatik 19:00etara. **Txaranga poteoa**, 19:00etan. **Hakker** kontzertuan, 23:30etan.

- » Irailaren 23an, **Triki poteoa**, 13:00etan. **Umeentzako tailerrak**, 18:00etan.

- » Irailaren 24an, **Meza**, 12:30etan. **Jubilatu bazkaria**, 14:00etan, Txantonesa jatetxean.

MUSIKA

DURANGO

- » Irailaren 21ean, **Kantuak irakurtzen** musika, poesia eta umorea, 20:30ean, Kurutzia Hotelean.

- » Irailaren 22an, **Tabira Musika Bandaren Kontzertu ibiltaria**, 12:15ean hasita, Alde Zaharrean zehar.

- » Irailaren 22an, **Herri Maite** akordeoi taldearen eta **Xabier Arana** organistaren emanaldia, 20:00etan, Andra Mariko basilikan.

- » Irailaren 22an, **Juerga feminista**, 20:00etan, Gaztetxean. **Afaria**, eta ondoren, **Petaludaenelms-**

treet, Mormore eta **Pediculosis** taldeen kontzertuak.

- » Irailaren 27an, **Kantulagun**, 20:00etan, Plateruenean. **Tapia** eta **Leturia** gonbidatu bereziekin.

- » Irailaren 28an, **Dr. Maha's soul**, R&B eta mamboa, 20:30ean, Kurutzia Hotelean.

TAILERRA

DURANGO

- » Amazulo Kooperatiban, **Irailaren Haurdunaldi eta erditze prestakuntza** tailerra. Astelehenerik, 10:30etik 12:00etara; eta eguenetan, 18:00etatik 19:30era. **Irailaren 5ean hasita, Erditzeos-tea: zoru pelbikoa eta abdomena berreskuratuta** tailerra, eguaztenetan, 18:30etik 19:30era. **Urritik aurrera, Zoru pelbikoa eta abdomena indartzeko ariketak 2** eguaztenetan, 19:30etik 20:30era. **Irailaren 27an, haur masaje ikastaroa**. Izena emateko: Barrenkale 18ko dendan, 946570087 edo 688860845 telefono zenbakietara deituta edo amazulo.koop@gmail.com helbide elektronikoan.

ZINEMA

DURANGO

- Zugaza
- Matalos suavemente**
Zuzendaria: Andrew Dominik
barikua 21: 19:00/22:00
zapateria 22: 19:30/22:30
domeka 23: 19:30/22:30
astelehena 24: 19:00/22:00
martitzena 25: 20:00
 - Umeen zinema
 - Los 3 chiflados**
Zuzendaria: P. eta R. Farrelly
zapateria 22: 17:00
domeka 23: 17:00
 - Zineforuma
 - La delicadeza**
Zuzendaria: D. eta S. Foenkinos
eguna 27: 20:30

ELORRIO

- Arriola
Programazio berria urritik aurrera

ZORNOTZA

- Zornotza Aretoa
Programazio berria urritik aurrera

IRAILERKO AGENDA

AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA

21ean, 18:00 "Pirritx eta Porrotx" Olaburu frontoian
22an, 06:00 eta 08:00etan Mendi martxa plazatik
23an, Euskararen eguna! Zikloturista martxa, kantulagub eta erromeria
27an, 19:00 "Mortimer monologoa", antzerkia. Ibarretxen
28an, txapligoak, kalejira, tailerrak, jubilatuen bazkaria, gazte bazkaria, magoa, donien atxa, Laiotz erromeria
29an, dantzarien kalejira, meza nagusia, bertsolariak, igel txapelketa, asto probak, dantzak, tortilla txapelketa, pelota, Luhartz
30ean, umeen parkea, tailerrak, gastronomia txapelketa, asto probak, Patxin eta Potxin pailasoak

IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA
09:00 Hainbat ibilbide (79-95 km)

19

"1911-2011 HERRI BATZORDEA"
20:30 Iurretako bandaren oroigarriaren aurkezpena Udaletxeko pleno aretoan. Ondoren luntxa




Irailaren 21ean, 22:00etan, Plateruenean

MORTIMER

Hainbat urte lehenago hildako bere emazteagaz elkartzea helburu du protagonistak, Mortimerrek. Aritz Rodriguez aktore zaldibartarraren eskutik, zuzeneko musika, akrobaziak, clowna eta umorea uztartzen ditu ikuskizunak.

DENBORAPASAK

	Boletan aritzeko toki *Irudiko fruitua	Poto Marrazki barregarri	Larru
	Zakar		
	Ontziaren albo		
Jakintza mota	Kisua		
Beldurti	Sagarroia, trikua		
		50	
		Mendi-atea	
Tiro eginez			Haize ekaitz bortitza
Laztandu			
Militarrei dagokiena		Ezezta	
Jantzi mota		Oroitzapen	
Titanioa	(Leh.) Zakurrak		
Emakume izena	Argi, hitz elkarketan		
		Bokala	
		Oxigenoa	
Emakume izena		Zintzo	
Halere		Potasioa	
			Bokala

ZORION AGURRAK > zorionak@anboto.org • Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Zorionak, **Aiotz!** Datorren astelehenean urtetxo bat beteko du. Txokolaterik sobratuko da Igone eta Mikelentzat?



Zorionak, **Oneka!** Irailaren 23an zure urtebetetzea delako! Musu handi bat etxekoan partez eta asko disfrutatua piraguan!



Zorionak, **Beñat** eta **Ekain**, irailaren 16an eta 28an zuen urtebetetzeak direlako. Musu handi bat etxekoan partez!

SUDOKUAK

1

	2					3
4	1			8		
	6	1				4
7	4	2	5	1		
		4		6	7	
9	5				4	2
		3	2	6	8	5
8	6					9
1	5		8	3		

2

	1	5		2	
	9			4	
	8	3	2	9	5
1	3	7			
5	1	2	3		
6					8
		7	5		
1	8	9		7	4
7	3	4		1	



Irailaren 18an **Jonek** 4 urte egin zituen. Zorionak eta musu potoloak zure familiaren eta lagun guztien partez!



Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 08 69
Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

Hamabostero, jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Parte hartzeko bidali kontakturako datuak.

BOTIKAK >

- Barikua, 21**
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6, Durango)
- Zapatua, 22**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
09:00-13:30
• Navarro (Artekale 6, Durango)
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
• Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
- 09:00-14:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
- Domeka, 23**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
- 09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
- Astelehena, 24**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 - Durango)
- Martitzena, 25**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
- 09:00-22:00
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
- Eguaztena, 26**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)
- Eguena, 27**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

- SOS Deiak.....112**
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
- GARRAIOAK**
Euskotren902 54 32 10
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia....946 811 001
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....670 409 330
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690
- UDALAK**
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
- Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
- UDALTZAINGOA**
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
- EGURALDIA >** ☁ ☀ ☁ ☁ ☁ ☁
- 29° BARIKUA** ☁
29° ZAPATUA ☁
28° DOMEKA ☁
26° ASTELEHENA ☁
22° MARTITZENA ☁

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



Abadiño (Traña-Matiena) - Eguaztenetan
10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga 0,80 euro
Tomatea 3,50 euro/kg
Piperrak 1,70 euro/doz
Bainak 5 euro/kg
Kalabazina 1,80 euro/kg
Azenarioak 1,50 euro/tx
Arraultzak 3,60 euro
Idiazabal gazta 16,50 e/kg
Gari ogia 3,30 euro

SOLUZIOAK

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

V	•	K	I	T	V	V	H
N	O	•	O	R	O	K	•
V	•	V	R	V	N	I	V
K	V	R	O	•	I	T	•
V	K	U	•	V	K	V	J
R	V	T	I	L	I	M	•
U	T	V	K	E	R	E	F
•	V	K	O	R	I	T	•
L	•	I	T	V	K	V	K
V	A	R	V	K	•	M	•
Z	T	V	L	•			
V	O	K	O	K			
•	P	•	B	•			



Igerilekuko kalenturak

Igerileku inguruko belardiko ihintzari begira nagoela egin dit txilio beti eskumako aurreko patrikan eramaten dudak mugikorrak. Eskua praka estuetan barrena sartzearekin batera, barrabiletara joan zait gogoa. Arto transgenikoz elikatutako arratoiak bezain bizkor hilko ote dira koskabiloetan uhin artean bizi diren zizareak? Berandu baino lehen telefonoa atera, eta lehengusinak gure aitaren mugikorreko zenbakia eskatu dit. Nik baietz, berehala esango diodala; berak, ostera, mesedez *Whatsapp* bidez bidaltzeko. Nik ezetz, ez daukadala horrelakorik eta *sms* batean bidaliko diodala. Orduan, modernizatu beharra daukadala bota dit aholkulari ahotsez.

Nik ezetz, ez daukadala eta *sms* batean bidaliko diodala. Modernizatu beharra daukadala bota dit

Telefonoa eskegi eta segituan, egunkaria zabaldu dut. Bertan, Xabier Gantzarainen gogoeta hartu eta "Gaur egun *whatsapp*-ik ez duena baztertuta geratzen da, inork ez baitu dirurik gastatu nahi hari abisatzen" irakurri dut, nire harridurarako. Aurrera jarraitu eta hurrengo orrialdean, Julio Soto gure ikaskidearen artikulua: "*Whatsapp*ina". *Whatsapp*-aren gainean hau ere, *Whatsapp*-a antisozial irizten zaizkion drogekin parekatuz. Horrenbestera ote?

Hau guztia irakurtzean igerilekuko sorosleari deitu diot, gero eta itogarriagoa egiten zitzaidan egoeratik ateratzeko. Baina ez, *whatsapp*ina kontsumitzaile bat baino gehiago eta *whatsapp*ina-k kontsumiturikoren bat ere ezagutzen duela azalduz, gehiago hondoratu nau. Zer egin *whatsapp*-aren hatzaparrek ez harrapatzeko?

"Jubilatzerakoan Zinemaldira joateko astia hartuko dut"

Joxe Aranzabal irakasleak 'Papillon' filman estra lana egin zuen, Dustin Hoffman eta Steve McQueenekin



Hueziko fakultatea Aretxabaletara (Gipuzkoa) pasa berrikan agertu da elkarrizketara Joxe Aranzabal. Komunikazio arloan esperientzia handia dauka eta Web 2.0 irakasgaia ematen du. Zaletasunen artean, zinea eta telesailen mundua dauka. Zinemaldira Dustin Hoffman datorrela iragarri duten honetan, duela ia berrogei urte ezagutu zueneko kontakut du Aranzabalek, *Papillon* filmeko estra izan baitzen ikasle sasoiaren.

Duela 40 urte, Donostian zenbiltzan ikasten, eta pelikula batean parte hartzeko aukera izan zenuen.

Filosofia ikasten nabilen. Lagunekin nengoe-la zabaldu zen berria: pelikula bat grabatu behar zen eta Steve McQueen eta Dustin Hoffman zetozen. Estra bila zebiltzan eta ordaindu egiten zuten. Lagun askok emangenuen izena.

Zelan gogoratzen dituzu filmatze egunak?

Goizeko seiak inguruan jasotzen gintuzten Grosen. Autobusean sartu, eta Hondarribiara. Lehenengo bi egunetan dendari izan nintzen, eta azken hiru egunetan, lehen mundu gerrako soldadu. Oso ondo pasatu genuen: izarrak ikusten genituen, zinea zelan egiten zen ikasi genuen... Jantzitegian itxuraren arabera ematen zizkiguten paperak. Multzoa ginengu. Gero hainbat aldiz ikusi genuen pelikula ea non agertzen ginen, baina agertu ere ez! Baina primeran pasatu genuen!

Dustin Hoffman eta Steve McQueen hurretik ezagutu zenuen?

Bai, berbetan gure artean egon, eta albotik batek, "excuse me", eta ah! Steve McQueen zen! Dustin Hoffman ez zen hain famatua oraindik, baina McQueen bere gorenean zegoen. Gurekin oso zuzena eta sinpatikoa zen; ez genion piperrik ulertzen, ez genekielako ingelesez, baina oso ondo. Dustin Hoffman oso obserbadorea zen. Gure ilaran preso jantzitako batzuk zeuden, eta baten ondoan jarri zen. Begira jarri eta konturatu zen atzazkalak zikin-zikinak zeuzkalla. Berari betunagaz zikintzeko eskatu zuen. Paper horietan txertatu eta bat gehiago izan gura zuen. Guretzako Steve McQueen batez ere idoloa zen, eta eurekin egotea itzela zen.

Greba txiki bat ere izan zenuten, protestan.

Bai, egunak luzatu egiten ziren-eta. Seietan irteten eta gauez bueltatzen ginen etxera. Pixka bat gehiago ordaintzeko eskatu genien, eta ezetz esan zigutenez greba egin genuen; filmatzea gelditu egin zen goiz batez. Orduantxe konturatu ginen gure artean polizia nazional batzuk zeudela. Greba egin genuenean aldentu egin ziren. Legez greba egitea debekatuta zegoen garai hartan, eta polizientzako, are gehiago. Ez zekiten zer egin, eta joan egin ziren. Arratsalderako konpondu zen, diru gehiago eman ziguten eta listo.

Aste bete egon, eta zenbat minutu filmatu ziren?

Hiru-lau eszena daude: presoak kalean gora doazenean, kale nagusian, hondartzan ere grabatu zuten eszena bat, Steve McQueen arinetan, amets gaiztotan... Ez da igartzen Hondarribia denik, baina han geunden gu. Pelikulak hiru ordu inguru irauten du, eta, guztira, Hondarribian grabatutakoa hiru minutu izango dira? Oso gutxi.

Zine zalea zara. Orduan ere bai?

Bai, pelikula asko ikusten genituen. Aste horretan piper egin genuen unibertsitatean, baina berdin zen! Dirutxo batzuk jaso eta batez ere esperientzia bizitzea itzela izan zen. Eta pelikula ona da. Urte asko pasatu dira, eta luzea bada ere, ondo ikusten da. Denborak higitu edo sendotu egiten du produktubate, eta honek ondo iraun du.

'Papillon' ikusi zenuen lehenengo aldiaz gogoratzen zara?

Euskal Herrira etorri zenean atoaan joan ginen lagun koadrila! Ea ezagunen bat noiz ikusiko, baina ez genuen inor ikusi! Gero konturatu zena ordu asko grabatzen direla eta editatzerakoan moztu egiten dela asko.

Zinemaldira joaten zara?

Behin egon nintzen, Hitchcocken film baten estreinaldian: *Frenzy*. Oso gustura, pelikula oso onazalako. Oso Hitchcock zaleak ginen. Gero Zinemaldia garai baten herrietara zabaldu zen, eta Eibarrrera joan ginen Kubako pelikula batzuk ikustera. Lanagatik batez ere ez dut aukerarik eduki. Baina ez dakizu zelan jubilatutakoan egiteko gauza batzuk utzi behar diren? Ba orduantxe Zinemaldira joango naiz, pelikula pare bat ikustera. Giro berezia egoten da, kartel handiak... Zinea berez da gauza berezia.

Web 2.0 irakasgaia ematen duzu. Teknologia zale handia zara?

Egunean egon gura nuelako hasi nintzen teknologia berriak jarraitzen. Zenbait jende oso trebea da teknologia kontuetan. Ni ez; zer gertatzen den ulertzeko eta informazioa kudeatzeko erabiltzen dut.

Joxe Aranzabal

Unibertsitateko irakaslea

Elorrioren bizi da, arrasatearra da sortzez.



www.plateruena.net

Irailak 27, eguna, 20:00etan hasiko dugu ikasturte barrial
Gonbidatuak: TAPIA ETA LETURIA



Eman izena Platerueneko barran edo
kultura@plateruena.net helbidean.
Urte osoko izen ematea: 15€ (irailaren 17tik aurrera)

Erdu kantura!

